

Nola eraikitzen da ikus-entzunezko testu arrakastatsu bat? Kimuakeko film laburrei buruzko txostena



Ikasle Kaiera



Egilea Ainhoa Fernández de Arroyabe Olaortua1

1. PROBLEMA EGITURATZAILEA

Problemetan Oinarritutako Ikaskuntzaren metodologia ezartzeko orduan, ikasgaiaren 3. gailan, *Ikus-entzunezkoen osagaiak*, eta, 4. gailan, *Mugimendua*, lantzen diren edukiak jorratzeko asmoa dut. Orotara, ikasgaiaren edukien %40a suposatzen dute bi gai hauek. Inplementazioari eskainiko diodan denborari dagokionez, berriz, ikasgaiari orotara dagozkion ordu-kopuruen %33a hartuko dut, hots, 50 ordu.

Taula 9. Problemetan oinarritutako inplementazioaren banaketa orduetan

Irakaskuntza mota	Inplementazioari eskainitako orduen banaketa	
	Presentzialak	Ikaslearen lan orduak/ ordu ez presentzialak
Eskola magistralak (M)	6	9
Gelako praktikak (GA)	14	21
GUZTIRA (%30)	20	30
	50 ordu	

Azkenik, notaren %30 suposatzen du problemetan oinarritutako ikaskuntza metodologiaren ezarpenaren ebaluazioak, eta, zuzenki dago lotuta, ikasgela praktikan ikasleek egin behar duten lanarekin. Esleipen hau egiteko arrazoiak bi dira: lehenik eta behin, inplementazioa gehienbat ikasgela praktikan garatzen dela. Egitasmoak hartzen duen eskola magistralen portzentajea baxua izateaz gain (6 ordu presentzial, 9 ez presentzial), ikasgela praktikan bete behar den lana osatzeko bideratuta daude bertan egiten diren ekimenak. Eta bigarrenik, %30a da, hots, graduan onartutako ikasgaiaren ebaluazio sistemak erabiltzen duen portzentajea.

Gauzak horrela, 2013/2014. urtean ezarriko den metodologiaren ebaluazioak, egungo programak finkatzen dituen balio eta irizpideak mantenduko ditu, aldaketa txiki batekin: eskola magistraleko 6 orduetan, eta, hauei dagozkien 9 ordu ez presentzialetan, ikasleek egin behar dituzten jarduerak, ikasgela praktikei zuzenduta dagoen %30aren barruan baloratuko dira, hain zuzen ere.

2.1. Galdera eraginkorra, azpi-galderak eta arazoaren idazketa

- Zeintzuk dira film labur batek bete behar dituen ezaugarriak *Kimuak* egitasmoan aukeratua izateko?
 - Zeintzuk dira fikziozko ikus-entzunezko testuen ezaugarriak eta osagaiak?
 - Zeintzuk dira ez fikziozko ikus-entzunezko testuen ezaugarriak eta osagaiak?
 - Zeintzuk dira ikus-entzunezko fikziozko eta ez fikziozko testuak sailkatzeko irizpideak?



Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatu ondoren, Itoiz Beltzunegi kultur teknikari gisa hasi da lanean Eusko Jaurlaritzan. Euskal Filmategia Fundazioak sustatzen duen *Kimuak* programaren inguruko txosten bat idaztea eskatu dio Gobernu berriak. Urtero, euskal film laburrik *onenak* aukeratu, eta, munduko zine eta ikus-entzunezko zinemaldi zein merkatu nagusietara banatzen ditu programak. Sortzaile gazteentzat aukera paregabea suposatzen du katalogoan parte hartzeak. Kontuan hartzekoa da, esaterako, *Kimuak* egitasmoaren bidez, Borja Cobeaga eta Nacho Vigalondoren film laburrak Hollywood-eko Oscar sarietarako aukeratu zituztela.

Horren harira, azken edizioan aukeratutako bi film laburren inguruan polemika handia piztu da euskal gizartean. Aipatu film labur horiek oso abstraktuak dira, eta, zenbait zinemagileen iritziz, ez dituzte aukeratuak izateko behar diren gutxieneko kalitate irizpiderik betetzen. Hau dela eta, epaimahaiak egindako aukeraketaren arrazoiak publikoki azaltzea eskatu du Euskal Zinema Zuzendari Gazteen Elkarteak. Beraien ustez, ez dira nahikoak Euskal Filmategia Fundazioak urteroko deialdian plazaratzen dituen aukeraketa irizpideak, ez bai dute aukeraketa justifikatzeko oinarri sendorik eskaintzen. Hartara, euskal film labur batek *Kimuak* egitasmoan aukeratuta izateko bete behar dituen ezaugarri objektiboak definitzen dituen txostena nahi du Eusko Jaurlaritzako Kultura zuzendaritzak. Fikziozko zein informatiboak diren film laburren gaineko kalitate-ezaugarriak zeintzuk diren azaldu behar du dokumentuak. Helburua da epaimahaiak urtero egiten duen aukeraketan, orain arte baloratu diren irizpide zabalez gain, ezaugarri objektibo hauek kontuan hartzea.

1.1. Helburu hezigarriak

Problemetan Oinarritutako Ikaskuntza metodologiaren ezarpenaren bitartez, bost dira lortu nahi diren helburuak:

- **H.1.** Ikus-entzunezko testuak analizatzeko bitartekoak ezagutzea, erabiltzea eta aplikatzea.
- **H.2.** Ikus-entzunezko kontzeptuak modu zuzen batean erabiltzea.
- **H.3.** Lan kooperatiboaren garrantziaz jabetzea.
- **H.4.** Ikus-entzunezko testuen gaineko analisisa eta hausnarketa, idatziz, eta, ahoz, modu zuzenean komunikatzeko gai izatea.
- **H.5.** Ikus-entzunezko testuen ginean eztabaidatzeko argudioak erabiltzea.

1.2. Landuko diren ikasgaiko gaitasunak eta ikaskuntza emaitzak

Taula 10. Inplementazioaren bitartez landuko diren konpetentzia eta ikaskuntza emaitzak

IKASGAIKO GAITASUNAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
IK.H.01. Ikus-entzunezko produktuen gaineko hausnarketa egiteko ezagutza teoriko-praktikoak eskuratzea	<p>I.E.01. Ikus-entzunezko Hizkuntzaren gaineko testu teorikoak eta entseguak ezagutzea, irakurtzea eta ulertzeko gaitasuna izatea.</p> <p>IE.02. Aipatu testuetatik ondorioztatutako ideia eta kontzeptu nagusiak zein diren identifikatzea eta ulertzea.</p> <p>IE.03. Ikus-entzunezko produktuen gaineko hausnarketa egiterakoan kontzeptu eta printzipio nagusiak modu zuzenean aplikatzea.</p>
	<p>I.E. 04. Irudi finko zein ikus-entzunezko testuen sumaketaren funtzionamendua ezagutzea eta sumaketak dakartzan baldintzapenak ulertzea.</p> <p>I.E. 05. Errepresentazioaren kontzeptua ezagutzea eta ulertzea, hots,</p>

<p>IK.H.02. Ikus-entzunezko eta ikusizko irudiaren zeinu eta kodeak interpretatzen eta analizatzen laguntzen duten pertzepzio-gaitasunak, balio sinbolikoak eta kulturalak identifikatzea</p>	<p>irudi finkoak zein ikus-entzunezko testuak eraikitako produktuak direla barneratzea, eta, argi izatea, aldez aurretik esanahi jakin bat adierazteko sortu direla.</p> <p>I.E. 06. Irudi finkoen zein ikus-entzunezko testuen aurrean eraikitako esanahia interpretatzeko behar diren oinarrizko kontzeptuak ezagutzea eta aplikatzea.</p>
<p>IK.H.03. Ikus-entzunezko berezko errekursoak eta teknikak ezagutzea.</p>	<p>I.E. 07. Ikus-entzunezko testuen osagai morfologikoak ezagutzea eta identifikatzea.</p> <p>I.E. 08. Ikus-entzunezko testuen osagai sintaktikoak ezagutzea eta identifikatzea.</p> <p>I.E. 09. Ikus-entzunezko fikziozko testuek eta ez fikziozko testuek dituzten eredu formalak ezagutzea.</p>
<p>IK.H.04. Ikus-entzunezko testuak analizatzea, eztabaidatzea eta interpretatzea.</p>	<p>I.E. 010. Ikus-entzunezko testuen osagai morfologikoak, sintaktikoak eta eredu formalak fikziozko testuetan identifikatzea, analizatzea eta eraikitako esanahia interpretatzea.</p> <p>I.E. 011. Ikus-entzunezko testuen osagai morfologikoak, sintaktikoak eta eredu formalak ez fikziozko testuetan identifikatzea, analizatzea eta eraikitako esanahia interpretatzea.</p> <p>IE. 012. Fikziozko eta ez fikziozko testuen gainean egindako analisiak idatziz modu zuzenean aurkeztea. Hots, ikus-entzunezkoen berariazko kontzeptuak zuzenki adierazi behar dituzte idatzitako lanek.</p> <p>I.E. 013. Fikziozko eta ez fikziozko testuen gainean egindako analisiak hitz-jario eraginkor, argudiatze zuzen eta ikusizko zein ikus-entzunezko baliabide egokiak erabilita publikoki aurkeztea.</p> <p>I.E. 014. Publikoki egindako aurkezpenetan entzuleek egindako galdera edo iradokizunei modu zuzenean erantzutea eta eztabaidatzea.</p>
<p>POI.K.05.* Ekipoan lan egiteko gaitasuna eskuratzea.</p>	<p>I.E.015. Talde formalak osatu eta elkarrekiko dependentzia baikorra garatzeko estrategiei so eginez, lan egin behar dute ikasleek.</p>

*Taulan zehazten diren ikasgaiko gaitasun ez den beste kompetentzia bat lantzen da: ekipoan lan egiteko ahalmena, alegia. POI.K.05. akronimoarekin adierazten du taulak, eta, Problemetan Oinarrizko Ikaskuntza dela medio lantzen den gaitasuna da. Aldez aurretik, eta, berez aurreikusita ez dagoen gaitasun hau, Ministerio de Educación y Ciencia, MEC-en oinarrizko 4. kompetentziarekin zuzenki dago lotuta. MEC4.: "Aditua eta aditua ez den publikoari informazioa, ideiak, arazoak eta irtenbideak igortzeko gaitasuna izan behar dute ikasleek". Era berean, gaitasun hau zuzenki erkatzen da Ikus-entzunezko Komunikazioko graduak, eta, Publizitate eta Harreman Publikoko graduak, beste bi gaitasunekin. Batetik, IK.G.08.: "Parte-hartzearekin, kudeaketarekin eta talde-lanaren optimizazioarekin erlasionaturiko trebetasunak garatzea, erabaki-hartzea eta emaitzen ebaluaziora zuzenduriko irizpideak jarraituz"; eta, bestetik, PU.G.08.: "Parte-hartzearekin, kudeaketarekin eta talde-lanaren optimizazioarekin erlasionaturiko trebetasunak garatzea, erabaki-hartzea eta emaitzen ebaluaziora zuzenduriko irizpideak jarraituz."

1.3. Problema egituratzailearen garapen sekuentziala

Galdera egituratzailea planteatzerakoan, *zeintzuk dira film labor batek bete behar dituen ezaugarriak Kimuak egitasmoan aukeratua izateko?*, adierazten da problemaren irakaskuntza helburu nagusia. Ikus-entzunezko testuen analisia egiten ikasiko dute Ikasleek (*Kimuak* egitasmoaren film labor jakinen aukeraketa bat izango da analisiaren corpusa). Horretarako, ezinbestekoa da ikus-entzunezko lengoaiaren ardatz diren kontzeptu teorikoak ikastea (izaera teoriko-praktikoa duten kontzeptuak dira, eta, ondo ulertzeko, ezinbestekoa da analisia egitea). Analisisian aplikatu behar diren eduki teorikoak dira: osagai morfologikoak, sintaktikoak, eszenaratzea, egitura narratiboa, baliabide adierazgarriak, eta, elementu hauek antolatze moduak, edo, eredu formalak.

Taula 11. Ikaskuntza ibilbidearen planifikazioa eta garapena

Galdera eragilea	Eduki teorikoak
-Zeintzuk dira film labor batek bete behar dituen ezaugarriak <i>Kimuak</i> egitasmoan aukeratua izateko?	- Gaitegiaren IV. Eta V. gaian lantzen diren guztiak. Jarraian, pausuz pasu, adierazten direnak, alegia.
Azpi-galderak	Eduki teorikoak
-Zeintzuk dira fikziozko ikus-entzunezko testuen osagaiak eta hauen ezaugarriak?	Ikus-entzunezkoen osagai morfologikoak eta sintaktikoak. Eszenaratzea eta muntaketa.
-Zeintzuk dira ikus-entzunezko fikziozko testuak eraikitze eta sailkatzeko irizpideak?	Egitura narratiboa eta eredu formalak.
-Zeintzuk dira ez fikziozko ikus-entzunezko testuak analizatzeko kontuan hartu behar diren elementuak?	Narrazioa eta muntaketa (osagaiak eta eszenaratzea ezagutzen dituzte, fikzioan erabiltzen diren oinarrizko elementuak dira).
Zeintzuk dira ikus-entzunezko ez fikziozko testuak sailkatzeko irizpideak?	Argudiatze moduak: eredu instituzionala, eredu behatzailea eta elkarreragilea

Ikus-entzunezko testuinguru zabala planteatzen du izaera orokorra duen galdera eragileak. Elkarren jarraian azaltzen diren lau azpi-galderak, berriz, mailakatutako ezagutza zehatzekin daude lotuta. Film laburren analisia da ibilbidearen haria. Hasieran, fikziozkoak, eta, ondoren, ez fikziozkoak.

Ikus-entzunezko fikziozko, eta, ez fikziozko testuetan, oinarrizkoak diren kontzeptuak ezagutzera behartzen du lehenengo azpi-galderak: eszenaratzearen ezaugarriak eta osagai morfologikoak, alegia. Hauekin batera lantzen dira, eszenaratzea, eta, fikzioan nagusi den muntaketa eredu. Bestetik, aipatu beharra dago, dokumentalaren eredu behatzaileak erabiltzen duela fikziozko muntaketa eredu nagusia, jarraitutasunarena, hain zuzen ere; eta, hortaz, oraindik ezagutzen ez duten arren, beranduago landuko duten ezagutza aurreratzen ari dira ikasleak. Laburtuz, lehenengo fase honetan fikziozko testuak lantzeaz gain, aitzinatzen dira dokumental eta ez fikziozko testuen oinarrizko ezaugarri eta eduki batzuk.

Bigarren azpi-galderan mantentzen da ikuspegi hau. Hots, fikziozko egitura narratiboa ikasterakoan, dokumental, eta, ez fikziozko testuetan, ere, oinarrizkoak diren kontzeptuak irakasten dira. Hori bai, fikzioari dagozkion eredu formalen deskribapen orokorra egiten dute ikasleek fase honetan. Izan ere, eduki hauek ez dira sakonki aztertzen Ikus-entzunezko Hizkuntza ikasgaietan. Berez, beste ikasturtetan ematen diren ikasgaien bidez, ezagutza horietan sakonduko dute Ikus-entzunezko Komunikazioko graduiko ikasleek. Era berean, esparru

honetan sakontzeko, hautazko ikasgai bat dute Publizitate eta Harreman Publikoko graduako ikasleek. Kazetaritzako ikasleek, berriz, ez dute horrelako aukerarik izango, baina, *Ikus-entzunezko Hizkuntza* ikasgaiaren landutakoarekin, bermatuta dute eduki hauen gaineko ikuspegi orokor, eta, sendo bat eskuratzen dutela; Kazetaritzako graduak eskatzen duen ezagutza maila, alegia.

Dokumental, eta, ez fikziozko testuetan, murgiltzeko bidea zabaltzen du hirugarren azpi-galderak. Izan ere, orain arte, ikasleek ezagutu dituzten oinarriko elementuak, testuinguru berri batean nola gorpuzten diren ikasiko dute jarraian. Honetarako, ezinbestekoa da dokumental, baina, batez ere, ez fikziozko testuen logika ulertzea. Fikziozko produktuak bezala, eraikitako testuak dira dokumentalak eta ez fikziozko testuak. Hots, naiz eta “errealitatearekin” lan egin, munduaren gaineko irakurketa jakin bat plazaratzeko asmoarekin antolatzen dute kontakizuna, izaera informatibo edo dokumentala duten produktuek. Orain arte egindako ibilbideari esker, oso erraz eta modu arinean onartzen da ideia hau. Honen ondorioz, ia automatikoa da azken azpi-galderarako jauzia.

Azken azpi-galderaren kasuan, fikzioan baino zehatzago landuko dira ez fikziozko erdu ezberdinak. Izan ere, hautazko ikasgaien bidez eduki hauetan sakontzeko aukera izango dute Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek. Baina ez da gauza bera gertatzen, Publizitate eta Harreman Publikoko kasuan. Hauek ez dute, printzipioz, honelako ezagutza sakonaren beharrik, eta, hortaz, beraien ikaskuntza planak ez du arlo hau garatzen duen bestelako ikasgaiarik. Kazetaritzakoek, berriz, beste ikasgai batzuetan, zeharka, lantzen dute gai hau. Honen adibidea da, esaterako, beraien ikasketa planaren barruan txertatuta dagoen beste ikasgai bat, zeinean, ikus-entzunezko erreportaje bat egiten duten. Hau guztia kontuan hartuta, gradu bakoitzaren beharrezanetara egokitu dira Problemetan Oinarritutako Irakaskuntza egitasmo honen edukiak.

1.4. Planifikazioa

Jarraian aurkezten den 13. taulan azaltzen dira, Problemetan Oinarritutako Irakaskuntza egitasmoaren planifikazioa, eta, ibilbidea. Taula egituratzerakoan, hiru izan dira kontuan hartu diren irizpide nagusiak: lehenengoa, eskola presentzialetan ikasleek egin behar dituzten ekintza hezigarriak; bigarrena, eskolatik kanpoko jarduerak, eta, azkenengoa, egitasmoaren saioak egutegian kokatzeko unea. Saioen denboratasuna finkatzen dute, taularen lehenengo bi zutabe bertikalek. Hartara, lehenengo zutabearen erakusten da, lauhilekoaren astearen zenbakia, eta, bigarreanean, berriz, hilabetearen astea. Honela, hilabete baten barruan egiten diren ekimenak sinkronikoki ikusteko aukera dago. Era berean, jarduera praktikoekin batera, eskola magistraletan, paraleloki eman behar diren eduki teorikoen jariora ere zehazki planifikatu daiteke. Azkenik, ekimenen garapena diakronikoki ikusteko aukera ere ematen du taulak. Hots, taulan ikusten da, jarduera praktikoen kontzentrazio, eta, dilatazio unek noiz ematen diren. Bestetik, aipatu beharra dago, planifikazio hau gutxi gora beherakoa dela, eta, berau antolatzeko, aurtengo akademia-egutegia, eta, ordutegiak, hartu dira abiapuntutzat. Hots, eskolak banatu dira astelehen eta ostiraletan, eta, egun bakoitzean, banatu dira bi ordu jarraituen blokeetan. Gainera, aurtengoan, ez zegoen talde bikoizketarik. Hots, talde bakarra dago eskola teoriko zein praktikotarako. Honekin batera, jai egunak saihesteko orduan, ikasgela praktikak egunez mugitzeko aukera ematen du egutegi honek. Hau guztiari esker, aurtengoan, bermatu dira 14 ikasgela praktika.

Eskola orduetan diseinatu diren ekintza hezigarriei begira, definizio sakona egiten da taulan. Bertan adierazten dira jarduera praktikoen honako ezaugarriak: irakaskuntza mota,

nortzuk parte hartzen duten ariketa bakoitzean (berton zehazten da jarduera bakoitzean talde osoak parte hartzen duen, talde formalek parte hartzen duten, edota, talde informalek parte hartzen duten), ekimenaren deskribapena, materiala, helburua eta iraupena. Honen harira, nabarmendu behar da iraupena oso zehatza dela: programan adierazitako denborarekin bat egiten du. Taulan nahiko argi azaltzen dira ere honako informazioak: eskola orduetatik kanpoko ekimenak zeintzuk diren, fitxak noiz igo behar diren, nora, edo, nori zuzendu behar zaizkion.

Saio bakoitzeko fitxaz gain, beste bi dokumentu nagusi azpimarratu behar dira: talde formalaren konpromiso dokumentua, hots, astero eskolatik kanpo egiten duten lanaren memoria da dokumentu hau. Bigarrena, txostenaren gida da, eta, hau berriz, bideratuta dago ekimen gehienetan egiten diren ariketak batzeko. Azken batean, ariketa guztiak txostenaren atal batekin daude lotuta.



Taula 12. Problemetan Oinarritutako Irakaskuntza egitarauaren sekuentzia. IKUS-ENTZUNEZKO HIZKUNTZA IKASGAIAREN EZARPEN EGUTEGIA					
SAIOA	IKASTURTE /ASTEA	HILABETE /ASTEA	IRAUPENA		IZENBURUA
			P.	EP.	
1. Eskola magistrala	Irailak 9, astelehena		1	0	Egitasmoa eta Problemetan Oinarritutako Irakaskuntzaren plangintzaren aurkezpena.
2. Ikasgela praktika	Irailak 20, ostirala		1	1	Problemaren aurkezpena: zer dakigu <i>Kimuaki</i> buruz?
3. Ikasgela praktika	Irailak 27, ostirala		1	1	Talde formala osatu eta lehen erronka: zeren arabera definitzen da film baten kalitatea?
4. Ikasgela praktika	Urriak 4, ostirala		1	6	Talde formala egonkortu / film laburren corpusa baloratu
5. Eskola magistrala	Urriak 11, ostirala		2	1	Talde bakoitzak landuko duen film laburren esleipena adostu
6. Ikasgela praktika Eskola magistrala	Urriak 14, astelehena		2	2	Talde formalaren bigarren erronka: azpi-galdera eragileei erantzun. Nola analizatu behar dugu ikus-entzunezko testu bat? Zer ikasi behar dugu horretarako?
7. Eskola magistrala	Urriak 18, ostirala		1	1	Txostenaren sarrera idatzi: Problemaren testuingurua
8. * Ikasgela praktika	Urriak 21, astelehena		1	1	Nola deskribatuko zenuke zure film laburraren egitura dramatikoak?
9. *Ikasgela praktika	Urriak 28, astelehena		1	1	Zeren arabera definitzen da fikziozko film labor baten egitura narratiboa? Denboratasuna. Sekuentziak eta eszenak.
10. Ikasgela praktika	Azaroak 4, astelehena		1	1	Zeren arabera definitzen da fikziozko film labor baten eszenaratzea eta muntaketa?
11. Ikasgela praktika	Azaroak 8, ostirala		1	2	Eszenaratzea eta muntaketa. Aurkezpena eta gogoeta / Txostenaren sarrera idatziz eman
12. Ikasgela praktika	Azaroak 11, astelehena		1	2	Zeren arabera definitzen da ez fikziozko film labor baten egitura dramatikoak eta narratiboa? Aurkezpen, korapilo eta amaiera / Bloke tematikoak
13. Ikasgela praktika	Azaroak 15, ostirala		1	2	*Egutegian egin den aldaketa bakarra: Ikasleek data honetara arte egin duten lanaren aurkezpena
14. Ikasgela praktika	Azaroak 18, astelehena		1	2	Egutegian egin den aldaketa bakarra : Ikasleek data honetara arte egin duten lanaren aurkezpena
15. Eskola magistrala	Azaroak 22, ostirala		1	7*	Zeren arabera definitzen da ez fikziozko film labor baten muntaketa?Txostenaren idazkuntzarako azken hausnarketa.
12.astea, derrigorrezko tutoretzak egingo dituzte ikasle taldeek.					
16. Ikasgela praktika	Abenduak 16 (ordu bat)		1		Txostenaren antolamendurako saioa.
17. Eskola magistrala	Abenduak 20		2		Lanen aurkezpena eta POIko ebaluazioa.
GUZTIRA: 50 ordu					

- **OHAR GARRANTZITSUA (1):** Irakaskuntzaren sekuentziari dagokionez, litekeena da 8. eta 9. saioen kasuan denbora aldaketa bat emate, a eta, hauen aurretik, 10 eta 11. saioa egitea.
 - **OHAR GARRANTZITSUA (2):** 12, 13 eta 14. asteetan lana amaitzeko denbora izango dute ikasle taldeek. Aste hauetan egin behar duten lan ez presentziala zenbatekoa den adierazten du, taulan agertzen den ordu banaketa: 5 ordu, txostenaren idazketa amaitzeko, eta, 2 ordu, aurkezpena prestatzeko.
- Jarraian, sesio bakoitzeko desglose zehatza dator: elkarren segidan antolatuta dauden 16 fitxak, eta, sesio bakoitzeko materiala.

Egitasmoa eta Problemetan Oinarritutako Irakaskuntzaren plangintzaren aurkezpena						
1. SAIOA	Irakaskuntza mota: eskola mag.		Ikasturte/astea	1	Hilabetea/astea	Iraila /2
Presentziala			Ez presentziala			
Talde osoa		Iraupena	60min			Ez dago
Jarduera mota: ikasgaiaren egitasmoaren azalpen sakona egingo du irakasleak			Gaitasunak: IK.H.01, IK.H.03, IK.H.04, POI.K.05. Ikaskuntza emaitzak: I.E.01, 02, 03, 07, 08, 09, 010, 011, 012, 013, 014 eta 015.			
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasgaiaren egitarau teorikoa ezagutzeaz gaian, ikasleek ikasturtean zehar Problemetan Oinarritutako Irakaskuntzaren nondik norako guztiak ondo ulertzea. - Moodle aurkeztea. - Egitarau teorikoa eta POIko plangintza eskura izatea. 					
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaslearen eskuliburua da egitasmo teorikoa eta Problemetan Oinarritutako Irakaskuntzaren plangintza zehazki azaltzen duen dokumentua. Honen laburpena banatuko da eskolan, eta, dokumentu osoa Moodlen eskegita izango dute ikasleek lehen egunean. 					
Ekimenak	<p>Irakasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasgaiaren egitasmoaren laburpena banatuko du irakasleak ikasleen artean (egitarau teorikoa eta POI programaren laburpena). - Moodlen sartuko da irakaslea, eta, egitasmo osoa deskargatuko du. Bide batez, Moodlen oinarritzko funtzionamendua azalduko die ikasleei. - Egitarau teorikoa, eta batez ere, Problemetan Oinarritutako Irakaskuntza egitasmoaren azalpen sakona egingo du irakasleak. Hots, POI zertan datzan, lan kooperatiboa zer den, zer nolako lan antolamendua dakarren, eta, azkenik, talde lanaren asteko programaziori erreferentzia egingo dio irakasleak. - Ikasleen zalantzak argituko ditu. - Oso garrantzitsua: 2. saiorako eramangarria ekartzea eskatuko die ikasleei. <p>Ikasleak/ek:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Moodlen eskegitako dokumentuari erreparatu, eta, eskura emandako laburpenaren dokumentua lagungarri izanda, irakaslearen azalpenak entzungo dituzte ikasleak. - Zalantzak plazaratuko dituzte. 					
Entregatu beharrekoa	Oraingoan ez dago etxeko lanik, lan ez presentzialik.					

MATERIALA						
1. SAIOA	Irakaskuntza mota: eskola mag.		Ikasturte/astea	1	Hilabete/astea	Iraila /2
<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasgaiaren egitasmoa (ikusi eranskinak) 2. POIko ekimenen egutegia (ikusi eranskinak) <ul style="list-style-type: none"> -Taula 21. Irakasleek prestatu behar duten materialaren egutegia /Ikasleek jasoko duten materialaren egutegia -Taula 22. Ikasleek materialaren entregatzeko egutegia 3. Ikaslearen eskuliburua (irakaslearen eskuliburuarekin batera irakasleak entregatuko duen dokumentua, alegia) 						

Problemaren aurkezpena: zer dakigu <i>Kimuaki</i> buruz?					
2. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea	2	Hilabetea/astea	Iraila/3
Presentziala			Ez presentziala		
Talde informaletan /banaka		Iraupena: 60 min	Banaka		Iraupena: 60 min
Jarduera motak: Puzzlea. Ikaskuntza helburuak taldeka definitu. Informazioa banaka bilatu. Aurkitutako informazioa taldean komunean jarri.				Gaitasunak: IK.H.01, POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak: I.E.0.1., I.E.02., I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran <i>Kimuaki</i> buruz egin behar duten txostena kontuan hartuta, programaren gainean bilatu behar duten oinarrizko informazioa zein den erabaki, bilatu eta osatzea. 				
Materialak	<p>Irakasleak:</p> <p>Presentziala:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Fitxa 1. Abiapuntua: problema egituratzailea. Zeintzuk diren bilatu behar dituzten hiru informazio nagusiak ondorioztatu behar dituzte ikasleek.. - Internet: aurreko eskola egunean eramangarriak ekartzeko eskatu zaie. <p>Ez presentziala: <i>Trípodos</i> aldizkarian argitaratutako <i>Kimuak</i> egitasmoaren garapenari buruzko artikulu akademikoa (ikusi eranskinak).</p> <p>Ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute. 				
Ekimen presentziala	<p>Irakasleak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zerrenda pasa. Ekimena gidatuko du. Talde informalak osatzeko jarraibideak eman eta ikasleak talde heterogeneoetan nahastuko ditu. 3 ikasle talde bakoitzeko. - Ekimenaren urrats bakoitzeko azalpenak emango ditu eta batez ere, denbora zorrozki kontrolatuko du. - Eskola amaitu baino lehen, ordu ez presentzialetan ikasleek banaka egin behar duten lana aipatuko du. <p>Ikasleak/ek</p> <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: irakaslearen aginduak jarraituz, talde informalak osatu (3 ikasle talde bakoitzeko) - 10 minutu: <i>Kimuak</i> egitasmoari buruzko testua irakurri eta problemarekin hasteko lortu behar dituen hiru informazioak zeintzuk diren erabaki behar dute ikasleek taldean. Hiru helburu direnez, helburu bat aukeratuko du taldekide bakoitzak. - 10 minutu: <i>Kimuak</i> egitasmoari buruz esleitu zaion informazioa Interneten bilatuko du ikasle talde bakoitzak (aurreko eskola egunean eramangarria ekartzeko eskatu zaie). - 10 minutu: ikasleek bilatu behar izan duten komuneko helburuaren arabeko taldeak (3 pertsona) osatu eta aurkitutako informazioa plazaratuko dute taldean. - 10 minutu: eskola hasierako talde informalak bildu eta hiru helburuei buruz jasotako informazio guztia idatziz jaso 1. fitxan. - 10 minutu: talde osoak saioan ikasitakoaren gaineko hausnarketa laburra egingo da. 				
Entregatu beharrekoa: 1. fitxarekin batera bildutako informazio guztia idatziz.			Epea: eskola orduaren barruan.		
Ekimen ez presentziala	<p>Ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Moodlen eskegitako <i>Kimuak</i> egitasmoaren garapenari buruzko artikulu akademikoa irakurri eta datu esanguratsuenak azpimarratu behar ditu ikasle bakoitzak (artikulu dokumentu honen eranskinetan dago eskuragarri). 				
Entregatu beharrekoa: artikuluan azpimarratu dituen datuekin hurrengo saiora eraman behar du norberak.				Epea: 3. saioa.	

MATERIALA			
2. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea 2	Hilabetea/astea iraila/3

1. Fitxa: Abiapuntua: problema egituratzailea. Zer dakigu <i>Kimuak</i> buruz?



Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatu ondoren, Itoiz Beltzunegi kultur teknikari gisa hasi da lanean Eusko Jaurlaritzan. Euskal Filmategia Fundazioak sustatzen duen *Kimuak* programaren inguruko txosten bat idaztea eskatu dio Gobernu berriak. Urtero, euskal film laburrik *onenak* aukeratu, eta, munduko zine eta ikus-entzunezko zinemaldi zein merkatu nagusietara banatzen ditu programak. Sortzaile gazteentzat aukera paregabea suposatzen du katalogoan parte hartzeak. Kontuan hartzekoa da, esaterako, *Kimuak* egitasmoaren bidez, Borja Cobeaga eta Nacho Vigalondoren film laburrak Hollywood-eko Oscar sarietarako aukeratu zituztela.

Horren harira, azken edizioan aukeratutako bi film laburren inguruan polemika handia piztu da euskal gizartean. Aipatu film labur horiek oso abstraktuak dira, eta, zenbait zinemagileen iritziz, ez dituzte aukeratuak izateko behar diren gutxieneko kalitate irizpiderik betetzen. Hau dela eta, epaimahaiak egindako aukeraketaren arrazoiak publikoki azaltzea eskatu du Euskal Zinema Zuzendari Gazteen Elkarteak. Beraien ustez, ez dira nahikoak Euskal Filmategia Fundazioak urteroko deialdian plazaratzen dituen aukeraketa irizpideak, ez bai dute aukeraketa justifikatzeko oinarri sendorik eskaintzen. Hartara, euskal film labur batek *Kimuak* egitasmoan aukeraketa izateko bete behar dituen ezaugarri objektiboak definitzen dituen txostena nahi du Eusko Jaurlaritzako Kultura zuzendaritzak. Fikziozko zein informatiboak diren film laburren gaineko kalitate-ezaugarriak zeintzuk diren azaldu behar du dokumentuak. Helburua da epaimahaiak urtero egiten duen aukeraketan, orain arte baloratu diren irizpide zabalez gain, ezaugarri objektibo hauek kontuan hartzea.

- Zeintzuk dira zeregin honekin hasteko ezagutu behar dituzuen hiru gai nagusiak?

Tripodos aldizkarian argitaratutako *Kimuak* egitasmoaren garapenari buruzko **artikulu akademikoa** (ikus eranskinak).

Galdera: zeintzuk dira Kimuakeko garapena azaltzen duten artikuluen daturik interesgarrienak? Azpimarratu itzazu datu garrantzitsuenak eta eskema batean antolatu.

Talde formala osatu eta lehen erronka: zeren arabera definitzen da film baten kalitatea?			
3. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika.	Ikasturte astea: 2	Hilabetea/astea: Iraila/3
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formalak	Iraupena: 60 min	Talde formalak	Iraupena: 60 min
Jarduera motak: taldeak osatzeko eta funtzionamendu egokia izateko ekimenak. Ikaskuntza helburuak taldean erabakitzea. Banaka landutako informazioa komunean jarri.		Gaitasunak: IK.H.01, POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak: I.E.0.1., I.E.02., I.E.03, I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek talde formalean lan egitea, eta, lan kooperatiboak zer suposatzen duen ulertzea. - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Ikasle bakoitzak bakarka egindako lana komunean jarri. Elkarrekiko dependentzia baikorra zer den ulertzen hasi. - <i>Kimuaki</i> buruzko txostenari begira, bi galdera eragile planteatzea: zeren arabera definitzen da film laburren kalitatea?; eta: zeren arabera aukeratuko dira txostena idazteko film laburrak? 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Talde formalaren konpromiso dokumentua (ikusi eranskinak). - Fitxa 2. Hausnarketa: zeren arabera definitzen da film laburren kalitatea?, zeren arabera aukeratuko dira txostena idazteko film laburrak? (ikusi eranskinak). Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Talde formalaren konpromisoa. - Fitxa 2. Hausnarketa: zeren arabera aukeratuko dira txostena egiteko film laburrak? Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. 		
Ekimen presentziala	Irakasleak: <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Talde formala zer den eta taldeak adostu behar duen konpromiso dokumentua zer den azalduko du. - 10 minutu: ikasleei talde formalak osatzeko denbora emango die. - 10 minutu: talde formal bakoitzari konpromiso dokumentua banatu eta sinatuko duten akordioari buruzko eztabaida egiteko denbora utzi. - 10 minutu: talde guztiei Moodlen eskegita dagoen 2. fitxa jaitsi eraziko die. Berton, <i>Tripodos</i> aldizkariaren artikulua abiapuntutzat hartuta, ikasturte amaieran ikasleek idatzi behar duten txostenarekin planteatzen diren lehenengo galderak bideratuko ditu. Eztabaida piztu. - 10 minutu: talde bakoitzari fitxa 2 lantzeko denbora eman. Zalantzak erantzun. Ikasleak/ek <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: irakaslearen azalpenak entzun. - 10 minutu: talde formalak osatu. - 10 minutu: konpromiso dokumentua irakurri, adostu beharrekoaren gainean pentsatu eta eztabaidatu. - 10 minutu: 2. fitxa jaitsi eta irakurri. Irakasleak planteatutako zalantzatan pentsatu eta eztabaidan parte hartu. - 10 minutu: taldean 2. fitxan plazaratzen diren gaiei buruzko gogoeta egiten hasi. Taldekide bakoitzak irakurritako artikulutik ondorioztatu dituen ideiak komunean jarri. 		
Entregatu beharrekoa: deus.		Epea:	
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formalean egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Konpromiso dokumentua osatu, eskaneatu eta Moodlen igo. - 2. fitxari buruz eztabaidatu. Taldekide bakoitzak irakurritako artikulutik ondorioztatu dituen ideiak komunean jarri ondoren, fitxa osatu eta Moodler igo. 		

Entregatu beharrekoa: Taldearen konpromiso dokumentua. 2. Fitxa		Epea: 4. saioa baino egun bat lehenago.	
MATERIALA			
3. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika.	Ikasturte astea: 2	Hilabetea/astea: Iraila/3

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA

1. TALDE FITXA

- Taldekideen izen abizenak, e-posta, telefonoa eta argazkia

2. HAUEXEK DIRA TALDEKIDEEK ELKARREKIN LAN EGITEKO ADOSTU DITUZTEN KONPROMEZUAK

-
-
-

Taldekide guztien sinadurak, data, eta, lekua.

3. LANAREN JARRAIPENA

Taldekideek saio bakoitzeko bete behar duten fitxa.

SAIOA:	ASTE:	Ekimena:
Non, noiz eta nortzuk bildu zarete:		
Lana egiteko behar izan duzuen denbora:		
Zer egin du bakoitzak?		
Arazorik?		
Iradokizunik?		

Fitxa 2: Hausnarketa: zeren arabera definitzen da film laburren kalitatea?, zeren arabera aukeratuko dira txostena idazteko film laburrak?

Irakurri duzuen *Tripodoseko* artikulua informazioa lagungarri izanda, bi galdera hauei erantzun eta egindako gogoeta argudiatu:

1. Zeren arabera definitzen da film laburren kalitatea?
2. Zeren arabera aukeratuko dira txostena idazteko film laburrak?

Talde formalak egonkortu / film laburren corpusa baloratu					
4. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea	3	Hilabetea/astea	Iraila/4
Presentziala			Ez presentziala		
Talde formalak		Iraupena: 60 min	Talde formalak		Iraupena: 360 min
Jarduera mota: gai bat ikaskideen aurrean laburki aurkezten du talde batek. Talde guztiek gaia komunean jarri. Irakaslearen azalpena. Ikaskuntza helburuak guztiok elkarrekin erabakitzea. Taldeak analisirako objektuak aukeratzea.				Gaitasunak: IK.H.01, POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak: I.E.01, I.E.02, I.E.03, I.E. 14, I.E.015.	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Ikasleek film laburren sailkapenak suposatzen dituen zaitasun erreal guztiez jabetzea. Proposamen itxiaren beharra onartu. - Eztabaida garatzea da helburua. 				
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Talde formalaren lan ez presentzialaren jarraipen dokumentua. - 2. fitxa osatuta. - Fitxa 3. Txostenerako film laburren proposamena. Talde bakoitzak landu behar dituen film laburren aukeraketa egiteko balorazio irizpideak (ikusi eranskina). Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - Fitxa 3. Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. - Internet /Bideoteka. 				
Ekimen presentziala	Irakasleak: <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Konpromiso dokumentuari buruzko zalantzak argitu. - 10 minutu: Moodletik talde formalaren lan ez presentzialaren jarraipen dokumentua jaitsi eta aurkeztu. - 15 minutu: talde formal bat aukeratu eta bertako ikasle bati 2. fitxan landutakoa aurkeztea eskatuko dio. Ondoren, beste taldeetako iritziak plazaratuko dira. Ekimena zalantzak sortzeko pentsatuta dagoenez, irakasleak proposamen itxi bat egingo die ikasleei. - 15 minutu: filmak aukeratzeko irizpidearen zailtasunak laburtu, errealitatean ematen diren zailtasunak direla azpimarratu eta argudiatutako sailkapenerako irizpideak betetzen dituzten <i>Kimua</i>keko film laburren zerrenda bat aurkeztuko du. Moodletik jaitzitako 3. fitxa, alegia. Ikasle talde bakoitzak zerrenda honetatik fikziozko eta ez fikziozko film labur bana aukeratu behar du. Honetarako, film labur guztiak ikusi eta baloratu beharko ditu. OHARRA: irakaslearen planteamendu honen arrazoa problemaren ibilbidea zuzentzea da. Aukeratzeko ematen diren filmak oso aberasgarriak dira, ikasleek ondorio hauetara heltzeko eskarmentu eta informazio handia beharko lukete. Ikasturte amaieran nahikoa izango dute baina orduan ere programako 110 film labur ikusi beharko lituzkete sailkapena egiteko. Bestetik, aipatu beharra dago ez fikziozko bi film labur aukeran ematen zaiela eskolan landuko ditugun bi ereduak adierazle bikainak direlako. Ikasleak/ek <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: konpromiso dokumentuari buruzko zalantzak plazaratu eta argitu. - 10 minutu: Moodle zabaldu. Taldeko lan ez presentzialaren dokumentua zer den ikusi eta zalantzak argitu. - 15 minutu: irakasleak aukeratu duen talde formalaren ordezkariaren aurkezpenari so egin, 2. fitxa. Ondoren, talde formal guztietako ordezkari zein partaideek irakasleak bultzatuko duen eztabaidan parte hartuko dute. - 15 minutu: irakaslearen proposamena entzun. 3. fitxa jaitsi eta eskolatik kanpo 				

egin behar den lanaren gaineko zalantzak bideratu.	
Entregatu beharrekoa: eskolan deus.	Epea:
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formalean egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - 3. fitxari osatzeko film laburrak ikusi eta ebaluatu behar dituzte. Dokumentuak film laburren estekak ditu ikuskapena interneten egiteko: www.kimuak.com. web orriarena, alegia. Dena den, taldeek Fakultateko Bideoteka ere erabil dezakete, <i>Kimuakeko</i> film labur guztien bilduma eskura dute bertan.
Entregatu beharrekoa: 3. fitxa Modlera igo.	Epea: 5. saioa baino egun bat lehenago.

MATERIALA			
4. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea	3

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikusi eranskinak)

3. fitxa. Txostenerako film laburren proposamena. Talde bakoitzak landu behar dituen film laburren aukeraketa egiteko balorazio fitxa.

AUKERAKETA EGITEKO RPOPSATUTAKO FILMEEN ZERRENDA

Jarraian azaltzen diren fikziozko eta ez fikziozko film laburrak, ikusi, eta baloratu. Film labur guzti hauek Fakultateko Bideotekalaben eskuragarri daude eta bertan ikus ditzakezue, edota interneten *Kimuak* egitasmoaren web orrialdean: www.kimuak.com.

Fikziozko film laburrak (hauetako bat aukeratu)

- [Midori](#), Koldo Almandoz (2006)
- [Cinco recuerdos](#), Oriana Alcaine eta Alejandra Márquez (2009)
- [For\(r\)est in the Des\(s\)ert](#), Luiso Berdejo (2006)
- [Tercero B](#), Jose Mari Goenaga (2002)
- [La primera vez](#), Borja Cobeaga (2001)
- [Sintonía](#), Jose Mari Goenaga (2005)
- [Por un infante difunto](#), Tinieblas González (1998)
- [7:35 de la mañana](#), Nacho Vigalondo (2003)
- [Éramos pocos](#), Borja Cobeaga (2005)
- [Terminal](#), Aitzol Aramaio (2001)
- [...ya no puede caminar](#), Luiso Berdejo (2001)
- [She's lost control](#), Haritz Zubillaga (2011)

Ez fikziozko film laburrak (hauetako bat aukeratu)

- [Ahate pasa](#), Koldo Almandoz (2010)
- [On the Line](#), Jon Garaño (2008)

FILM LABURRAK BALORATZEKO FITXA

Film labur bakoitza baloratzeko fitxa hau bete behar duzue:

Izenburua:	Urtea:
Zuzendaria(k):	Produkzio etxea:
Generoa:	Hizkuntza:
Gaia:	
Argumentua:	
Ezaugarri formal aipagarrienak:	
Indarrak:	
Ahultasunak:	
Puntuazioa (1-5)	

Talde bakoitzak landuko duen film laburren esleipena adostu			
5. SAIOA	Irakaskuntza mota: eskola magistrala	Ikasturte astea: 4	Hilabetea/astea: Urria/1
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formaletan	Iraupena: 120min	Talde formaletan	Iraupena: 60min
Jarduera motak: Talde guztiak gaia komunean jarri. Talde guztien artean lanerako objektuaren esleipena adostu.		Gaitasunak: IKH.01, POI.K.05, Ikaskuntza emaitzak: I.E.03, I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Ikasleek txostena idazteko proposatutako film labur guztiak ikusi eta baloratzea. Talde bakoitzak bi landu behar izango ditu, baina problemaren ikuspegi orokorraz jabetzeko corpus osoa ezagutzea ezinbestekoa da. - Talde bakoitzaren film esleipena egitea. - Talde eztabaida egitea. 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 3. Fitxa guztiak osatuta Moodlen. - 4. fitxa Moodlen. Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - 4. Fitxa Moodlen. Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. 		
Ekimen presentziala	Irakasleak: <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Ikasleen talde formalen ordezkarien zein komunean baloratuko diren film laburren zerrenda aurkeztu. Eztabaida bideratu. Fikziozko film laburrak 12 direnez eta ez fikziozkoak bi, 40 minutuko bi blokeetan garatuko dira. Tartean 10 minutuko atsedena hartuko dute ikasleek. - 10 minutu: talde bakoitzaren film laburren esleipena ikasleekin batera erabakiko du. 4. fitxa Moodletik jaitsi eta aurkeztuko du. Ikasleak/ek: <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: irakasleak planteatzen duen aurkezpen zerrendari so egin. - 40 minutu /10 minutu atsedena /40 minutu: film bakoitzaren gaineko balorazioa entzun, iritzia eman. Taldeari dagokionean, bakoitzaren aurkezpena egin. - 10 minutu: esleitutako film laburrak apuntatu eta 4. fitxa irakurri. 		
Entregatu beharrekoa: eskola orduan deus.		Epea:	
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formaletan egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - 4. fitxa bete 		
Entregatu beharrekoa: 4. fitxa Modlera igo.		Epea: 7. saioa baino egun bat lehenago.	

MATERIALA			
5. SAIOA	Irakaskuntza mota: eskola magistrala	Ikasturte astea: 4	Hilabetea/astea: Urria/1

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikus eranskinak)

4. fitxa. Film laburren fitxa teknikoa

Taldeari esleitutako film labur bakoitzeko fitxa bete. Lan hau egiteko orduan zalantzak badituzue, mesedez, idatzi eta datorren eskolan elkarrekin komentatuko ditugu.

Jatorrizko film laburraren izenburua:	
Film laburraren izenburua:	
<ul style="list-style-type: none"> Filmaren irudia hemen txertatu 	Zuzendaria: Zuzendari laguntzailea: Gidoigilea:eleberri, istorio originalean oinarritutako gidoia. Hizkuntza: Produktorea: Ekoizpen-etxea: Herria: Urtea: Iraupena: Banaketa-etxea:
Aktoreen zerrenda:	
Arte zuzendaria: Argazkia: Soinua: Musika: Muntaketa: Efektu bereziak: Jantziak: Makillajea:	
Interneteko loturak:	

Talde formalaren bigarren erronka: azpi-galdera eragileei erantzun: Nola analizatu behar dugu ikus-entzunezko testu bat? Zer ikasi behar dugu horretarako?			
6. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika eta eskola magistrala	Ikasturte astea: 4	Hilabetea/astea: Urria/1
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formala	Iraupena: 120min	Talde formala	Iraupena: 120min
Jarduera mota: Ikaskuntza helburuak taldean erabakitzea. Informazioa eta iturriak bilatzea. Banaka landutako informazioa komunean jarri. Talde guztiek gaia komunean jarri eta eztabaidatu. Irakaslearen azalpena.		Gaitasunak:IK.H.01., POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak: I.E. 01, IE.02, I.E.03, I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Behin <i>Kimuakeko</i> film labur adierazgarriak aukeratuta, txostenak dakartzan gainontzeko azpi-galdera eragileak planteatzea. Hots, ikasleek ikus-entzunezko testu bat analizatzeko orduan zer jakin behar duten eta nola egin behar den pentsatzea. - Azpi-galdera eragile hauek zalantzak piztea eta ikasleek analisirako gidaren beharraz jabetzea. Eskolan eztabaida bultzatzea da helburua. 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 5. fitxa Moodlen. Galdera eragileak: nola analizatu daiteke ikus-entzunezko testu bat (ikus eranskina). - Txostena egiteko gida dokumentua Moodlen (ikus eranskina). Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - Txostena egiteko gida dokumentua Moodlen. Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. 		
Ekimen presentziala	Irakasleak: <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Moodle zabaldu eta 5. fitxa azalduko du. Bertan, problemaren bigarren ardatza aurkezten da: zer jakin behar da eta nola egiten da ikus-entzunezko testu baten analisia? Oharra: ekimena zalantzak sortzeko pentsatuta dago, baina aurrekoan ez bezala, oraingorako ikasleek badute informazio apur bat. Izan ere eskola magistraletan ikus-entzunezko osagaiak aztertu dira. - 10 minutu: talde formal bakoitza bi azpialdetan banatuko du, A eta B, eta azpialde bakoitzari galdera batzuk esleituko dizkio. - 10 minutu: azpialde bakoitzak esleitutako galderen bilaketa egingo du interneten. - 10 minutu: A eta B azpialdeetako partaideak elkartzeko agindua emango du (talde asko badira bi azpimultzo antolatuko ditu irakasleak). Azpialdeetako ikasleek aurkitutako informazioa komunean jarriko dute. - 10 minutu: talde formalak elkartu eta A eta B azpi-galderei buruz bildu duten informazioa 5. fitxan idatziko dute. - 10 minutu: atsedena. - 10 minutu: ikasleen talde formalen ordezkarien parte hartze zerrenda aurkeztu. Eztabaida bideratu. - 20 minutu: Eztabaida. Galdera bakoitzaren inguruan dauden iritziak jaso eta bideratu. - 20 minutu: 5. Fitxa guztiak jaso ondoren, eztabaidak eragin dituen zalantzak jaso eta lan proposamena bideratuko die ikasleei. Esparru profesionalean filmak analizatzeko erabiltzen diren tresnak eta prozedurak antolatuko ditu. Ikasleek ezagutza partziala dute baina ikuspegi orokorra behar dute. Txostena egiteko gida dokumentua azalduko du. Gida hau hemendik aurrera garatuko 		

	<p>diren ekimenei begira ezinbestekoa da. Oharra: irakaslearen planteamendu honen arrazoa problemaren ibilbidea zuzentzea da.</p> <p>Ikasleak/ek:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: Moodle zabaldu, 5. fitxa jaitsi eta irakaslearen azalpenei so egin. - 10 minutu: talde formal bi azpitaldetan banatuko, A eta B. Norberari esleitutako azpitaldea A edo B eta galderak zeintzuk diren argi izan. - 10 minutu: esleitutako galderen bilaketa egin interneten. - 10 minutu: dagokion A edo B azpitaldeetan elkartu eta informazioa komunean jarri. - 10 minutu: talde formalak elkartu eta A eta B bildu duten informazioa 5. fitxan idatziko. - 10 minutu: atsedena. - 10 minutu: irakaslearen parte hartze zerrenda jarraitu. - 20 minutu: Eztabaida. Azpi-galdera bakoitzaren inguruan dituen iritziak eman eta zalantzak plazaratu. Besteen iritzi eta zalantzak kontuan hartu. - 20 minutu: 5. fitxa irakasleari eman. Txostena egiteko gida dokumentua zabaldu eta azalpenak jarraitu.
Entregatu beharrekoa:	5. fitxa eskola orduan deus. Epea: lehen eskola ordua.
Ekimen ez presentziala	<p>Ikasleek talde formalean egin beharreko lana:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - Txostena egiteko gida dokumentuaren lehen atala osatu: Sarrera.
Entregatu beharrekoa:	Txostena egiteko gida dokumentuaren sarrera Modlera igo. Epea: 7. saioa baino egun bat lehenago.

MATERIALA			
6. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika eta eskola magistrala	Ikasturte astea: 4	Hilabetea/astea: Urria/1

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikusitako eranskinak)

5. fitxa. Galdera eragileak: nola analizatu daitezke ikus-entzunezko testu bat?

- A. Azpitaldeak erantzun beharreko galderak:
- Nola analizatuko dugu fikziozko film laburra? Zeintzuk dira erabiliko ditugun irizpideak?
 - Kontuan hartu behar ditugun irizpidea hierarkiko antolatu daitezke? Nola?
- B. Azpitaldeak erantzun beharreko galderak:
- Nola analizatuko dugu fikziozko film laburra? Zeintzuk dira erabiliko ditugun irizpideak?
 - Kontuan hartu behar ditugun irizpidea hierarkiko antolatu daitezke? Nola?

TXOSTENA EGITEKO GIDA DOKUMENTUA

LANAREKIN HASI BAINO LEHEN OHAR BATZUK:

1. Aurkeztu dugun problema nagusiari erantzutea da idatzizko txosten honen helburua. Hortaz, jarraian egingo duzuen fikziozko eta ez fikziozko film laburren analisia amaitu ondoren, probleman planteatzen den galdera eragile, zein, azpi-galderei, erantzuten dion azalpen-testua idatzi behar duzue. Hots, lan prozesuaren ondorioa laburtzen duen testua izango da hau.
2. Idazkuntza estiloari dagokionez, honakoak dira arauak:
 - letra mota, Arial 11, testuan. Izenburuak: Arial 12. Mailaketa: - **IZENBURUA BAT** , **1. Izenburua bi**, **1.1. Izenburua hiru**. Testua justifikatuta eta sangriarik gabeko paragrafoak. Paragrafo artean lerro-arteke tarte sinplea.
 - Irudiak txertatzen badira, argazki oinetan zuzendariaren izena, filmaren izenburua eta urtea agertuko dira.
 - Aipamenak egiten badira, letra larriz azalduko dira. Bibliografiarako arauak: abizenak (letra larriz), egilearen izena. Izenburua (letra etzanez), argitalpen zenbakia, hiria: argitaletxea, urtea; orriak.
3. Lehen orrialdean, lanaren izenburua eta taldekideen izena eta bi abizenak agertuko dira. Ondorengo orrialdean, aurkibidea.

LANAREN EDUKIEN AURKIBIDEA

1. Sarrera:

Zer da *Kimuak*? Nola funtzionatzen du? Zein izan da programaren garapena? Zeintzuk izan daitezke arrakastaren arrazoi nagusiak? Zeintzuk izan dira, eta, zergatik, film laburrik aipagarrienak? Zeintzuk dira txostena idazteko aukeratu dituzuen fikziozko eta ez fikziozko film laburrak?

2. Fikziozko film laburra

2.1. Definizioa

- Fitxa teknikoa.
- Filmaren ibilbidea, lortu duen oihartzuna eta zuen ustez ezaugarriarik aipagarrienak.
- Zuzendariaren profila eta eskarmentua.

2.2. Egitura dramatiko

2.3. Egitura narratiboa

2.4. Muntaketa eta eszenaratzea

2.5. Eszena nagusiaren analisia

3. Ez Fikziozko film laburra

3.1. Definizioa (izenburua, urtea, zuzendaria)

- Fitxa teknikoa.
- Filmaren ibilbidea, lortu duen oihartzuna eta zuen ustez ezaugarriarik aipagarrienak.
- Zuzendariaren profila eta eskarmentua.

3.2. Egitura dramatiko

3.3. Egitura narratiboa

3.4. Muntaketa eta eszenaratzea

4. Txostenaren ondorioak

5. Bibliografia

Txostenaren sarrera idatzi: Problemen testuingurua			
7. SAIOA	Irakaskuntza mota: eskola magistrala	Ikasturte astea: 5	Hilabetea/astea: Urria/2
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formala	Iraupena: 60min	Talde formala	Iraupena: 60min
<p>Jarduera mota: taldeak gai bat ikaskideen aurrean laburki aurkezten du. Talde guztiek gaia komunean jarri eta eztabaidatu. Informazioa eta iturriak bilatu eta taldeka komunean jarri. Taldean ikasitakoaren balorazioa. Ikasitakoa problemaren esparru jakinetan aplikatzea.</p>		<p>Gaitasunak: IK.H.01. POI.K.05</p> <p>Ikaskuntza emaitzak: I.E. 01, I.E.02, I.E.03, I.E. 14, I.E.015</p>	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Txostenaren sarrerarekin lotzen diren informazioak bildu, zalantzak argitu eta idatziz azaltzea. - Landutako testuaren aurkezpen publikoa egitea, ikaskideei ahoz komunikatzea. 		
Materialak	<p>Irakasleak:</p> <p>Presentziala:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. fitxa guztiak eskolara eraman. - 4. fitxa guztiak osatuta Moodlen. - Txostena egiteko gida dokumentua: Sarrera. Guztiak. - 6. fitxa. Zuzendarien eskarmentu profesionala Moodlen (ikusi eranskina). <p>Ez presentziala:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - 6. fitxa Moodlen. <p>Ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. 		
Ekimen presentziala	<p>Irakasleak/ek</p> <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Eskola ordua <i>Kimuak</i> egitasmoari buruz zein talde bakoitzak landu behar dituen film laburren inguruan jaso, landu eta idatziz azaldu den informazioa aztertuko du. - 10 minutu: talde formal bakoitzaren aurkezpen zerrenda egingo du eta parte hartzea bideratu. - 30 minutu: aurkezpenak bideratuko ditu. Txostenaren sarrerak <i>Kimuaki</i> buruz eskatzen duen informazioa aurkeztuko dute ikasleek eta baita 4. fitxa edo fitxa teknikoak. Honek eragindako zalantzak argituko ditu. <p>Ikasleak/ek</p> <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: irakaslearen azalpenei so egin. - 10 minutu: aurkezpen zerrendari so egin. - 10 minutu: talde formaletako ordezkari batek <i>Kimuak</i> egitasmoaren definizioa eta funtzionamendua zein den aurkeztuko du. - 10 minutu: talde formaletako <i>Kimuak</i> egitasmoaren garapena eta lorpen nabarmenenak zeintzuk izan diren aurkeztuko du. - 10 minutu: talde formaletako 4. fitxan azaltzen den film laburren fitxa teknikoak azalduko du. 		
Entregatu beharrekoa: eskola orduan deus.		Epea:	
Ekimen ez presentziala	<p>Ikasleek talde formaletan egin beharreko lana:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - Txostena egiteko gidan idatzitakoa osatu. Sarreraren behin betiko bertsioa idatzi. Berton 4. fitxaren informazioa ere txertatu behar da. 6. fitxa bete. 		
Entregatu beharrekoa: Sarreraren behin betiko bertsioa Modlera igo.		Epea: 8. saioa baino egun bat lehenago.	

MATERIALA			
7. SAIOA	Irakaskuntza mota: eskola magistrala	Ikasturte astea: 5	Hilabetea/astea: Urria/2

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikus eranskinak)

6. fitxa. Zuzendarien eskarmentu profesionala

Bi film laburren zine-zuzendarien eskarmentu profesionalari buruzko informazioa bilatu eta beraien soslai idatzi. Zine-zuzendari bakoitzaren argazki bat ere lortu behar duzue.

Gogoratu, eskarmentu profesionala definitzeko orduan, ez direla bakarrik hartu behar kontuan zine-zuzendari bezala egin dituen lanak, pertsona batek beste hamaika ardua eta zeregin garatu ditzake ikus-entzunezkoetan. Era berean, bere lanekin lortu dituen arrakastak edota sariak aipatu beharra dago. Azkenik, ikasketak eta bestelako informazioa ere agertu behar da.

Bilaketa edota idazkuntza egiterakoan, zalantzarik baldin badituzue, idatzi eta argituko ditugu.

Gardentasunaren muntaketa			
Eszena baten <i>découpagea</i> eta <i>raccordaren</i> legeak			
8. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 5	Hilabetea/astea: Urria/2
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formaletan	Iraupena: 60 min	Talde formaletan	Iraupena: 60 min
Jarduera motak: ikasitakoa problemaren esparru jakinetan aplikatzea. Talde guztiek gaia komunean jarri eta eztabaidatu.		Gaitasunak IK.H.01. IK.H.03, IK.H.04, POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak I.E.03, I.E.07, I.E.08, I.E.010, I.E.011, I.E. 14, I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - <i>Raccordaren</i> arauak ulertzea eta irudien <i>découpageari</i> aurre egitea. - Landutakoa ikaslideei ahoz eta terminologia zuzena erabiliz komunikatzea. 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 6. fitxa guztiak osatuta Moodlen. (ikus eranskina) - 7. fitxa, <i>découpagearen</i> jokoak. Moodlen. (ikus eranskina) - Kartoi mehe handia. Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - 8. fitxa, <i>découpagearen</i> jokoak, 2. atala. (ikus eranskina) Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. - Folio zuriak, aitzurrak eta itsasgarria. 		
Ekimen presentziala	Irakasleak: <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. 6. fitxak sortu ditzakeen zalantzak argitu. - 10 minutu: 7 fitxa aurkeztu, talde bakoitzak gidoi literario batetik esleitutako eszenen planifikazioa egin behar du. Horretarako, elkarren jarraian antolatuko dituzten planoak marraztu, moztu eta eszenen zenbakiak dituen kartoi mehe handian itsatsiko dira. - 20 minutu: ikasleek ariketa egiterakoan dituzten zalantzak argitu. - 10 minutu: talde bakoitzak garatu dituen eszenen planoak kartoi mehean itsatsi eta lanaren gaineko iradokizunak plazaratu. Ikasleak/ek: <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: 6. fitxak sortu dituen zalantzak planteatu. - 10 minutu: adi egon azalpenei. - 20 minutu: Eszenen planifikazioa egin, planoak marraztu eta moztu. - 10 minutu: itsatsi eta eztabaidan parte hartu. 		
Entregatu beharrekoa: 7. fitxa eskola orduan.		Epea: eskola ordua.	
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formaletan egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - 8. fitxa bete. Jokoa 2., hitzen bidez kontatu ezin diren eszenak. 		
Entregatu beharrekoa: 8. Fitxak ondorioztatzen duen materiala sortu, planoak moztu.		Epea: 9. Saiorako ekarri aipatu materiala.	

MATERIALA			
8. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 5	Hilabete/astea: Urria/2

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikus eranskinak)

7. fitxa. *Découpage*-aren jokoia

Vertigo, Alfred Hitchcock (1958) filmaren gidoia (gaztelaniazko itzulpena) lan egiteko erabiliko dugu. Berton, elkarren jarraian azaltzen diren eszena jakin batzuk aukeratu, eta, talde bakoitzari gutxienez bi, eta, gehienez, lau, esleituko zaizkio (eszenen konplexutasunaren arabera esleipena egingo da). Tokatu zaizkion eszenen planifikazioa garatu behar du talde bakoitzak, hots, *découpagearen* ispilua den urratsa. Fitxatxoan adieraziko da eszena osatzen duen plano bakoitza. Irudiaren marrazkia eta aipatzen diren ezaugarriak bete behar ditu ikasleak.

(Marrazkia)

Plano mota:
 Angeluazioa:
 Altuera:
 Mugimendurik:

Gogoratu: eszena osatzeko orduan, *raccordaren* legeak errespetatu behar direla. Eszena bakoitzeko planoak moztu eta eskolan izango dugun kartoi mehe erraldoian itsatsiko ditugu. Lana egiteko iturria: *Vertigo: De entre los muertos/ director Alfred Hotchcock*. Fundación Viridiana, Madrid: 1991.

8. fitxa. *Découpage*-a jokoia 2.

Oraingoan, planoen bitartez azaldu behar dira elkarrizketarik ez duten egoerak. Eszena kopurua edo zer nolako planoak erabiliko dituen aukeratuko du talde bakoitzak. Gogoratu: hurrengo eskola egunerako, plano bakoitza marraztuta, definituta eta moztuta ekarri behar dela.

Egoera:

1. Bikote bat apurtzekotan dago. Ez dira elkarrekin ondo moldatzen, baina erabakia hartzeko bidea zailtzen du errutinaren erosotasunak. Iraganeko une atseginak gogoratzen ditu neskak. Baina, eguneroko errealitate ezatseginera ekarriko du, berriro ere, mutilaren jarrerak. Nazkatuta, harremana bukatu dela aditzera emango dio neskak mutilari. Amaiera libre: etxea uzten duteneko eszena.

Soinua eta irudiaren arteko harremanak identifikatu			
9. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 6	Hilabetea/astea: Urria/3
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formaletan/ Taldea osoan	Iraupena: 60min		Iraupena:
Jarduera motak: Ikasitakoa problemaren esparru jakinetan aplikatzea. Taldeak gai bat ikaskideen aurrean laburki aurkezten du. Talde guztiek gaia komunean jarri eta eztabaidatu.		Gaitasunak IK.H.01. IK.H.03, IK.H.04, POI.K.05	
		Ikaskuntza emaitzak I.E.03, I.E.07, I.E.08, I.E.010, IE.011, I.E.14, I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Landutakoa, ikaskideei ahoz eta terminologia zuzena erabiliz komunikatzea. - <i>Raccordaren</i> arauaz gain, soinua eta irudiaren arteko harremanak ustiatzea. 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 8. fitxaren materiala ekarri. (ikus eranskina) - 9. fitxa, <i>Découpagearen jokoak 3., soinua</i>. Moodlen. (ikus eranskina) - Kartoi mehe handia. Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - 9. fitxa Moodlen. Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. - Folio zuriak, aitzurrak eta itsasgarria. Kartoi mehe handia. 		
Ekimen presentziala	Irakasleak <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. - 10 minutu: talde formalek 8. Fitxaren materiala itsatsi - 10 minutu: talde osoaren eztabaida. - 10 minutu: 9. fitxaren proposamena aurkeztu, 7. eta 8. ariketetan itsatsitako eszenak oinarri hartuta irudi eta soinuaren arteko harreman ezberdinak pentsatzea eskatzen zaie. - 10 minutu: talde osoak aukera ezberdinak plazaratu. Ikasleak/ek <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: adi egon. - 10 minutu: lana itsatsi. - 10 minutu: eztabaidatu. - 10 minutu: 9. fitxaren erronka entzun. - 10 minutu: 9. fitxari aukera ezberdinak plazaratu 		
Entregatu beharrekoa: eskola orduan deus.		Epea:	
Ebaluazio mota: ebaluazio hezigarria		Ebaluazioaren helburua:	
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formaletan egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. 		
Entregatu beharrekoa: deus.		Epea:	

MATERIALA			
9. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 6	Hilabete/astea: Urria/3

9. fitxa. Découpagearen jokoa 3. Soinua

8. fitxan azaltzen den ariketatik ondorioztatu den planifikazioa abiapuntutzat hartuta, gertaeraren une hauen eszenak honako baliabideak erabilia kontatu: elkarrizketak, narratzaile orojakile edota narratzaile homodiegetikoa. Hori bai, gogoratu musika eta giro soinua ere barneratu behar dituela testuak. Talde bakoitzari zeregin bat esleituko zaio.

1. Bikote bat apurtzekotan dago.
2. Ez dira elkarrekin ondo moldatzen, baina erabakia hartzeko bidea zailtzen du. errutinaren erosotasunak
3. *Flashback*: neskak iraganeko une atseginak gogoratzen ditu.
4. Eguneroko errealtate ezatseginera ekarriko du, berriro ere, mutilaren jarrerak.
5. Nazkatuta, harremana bukatu dela aditzera emango dio neskak mutilari. Amaiera libre: etxea uzten duteneko eszena.

Oraingoan, plano bakoitzaren fitxatxoaz gain, aparteko folio batean, eszenarekin bat datorren narratzailearen testua, edota, pertsonaien arteko elkarrizketak idatzi behar ditu talde bakoitzak. Hemen ere, musika edota giro soinuari so egin behar zaio. Talde bakoitzaren ariketa azaltzerakoan, irudiak erabilia aditzera emango da soinuaren antolamendua.

Gogoratu eszena edota plano gehiago behar baldin badituzue sor ditzakezuela.

(Marraskia)
Plano mota: Angeluazioa: Altuera: Mugimendurik:

Nola deskribatuko zenuke zure film laburraren egitura dramatikoa?			
10. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 7	Hilabetea/astea: Urria/4
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formala	Iraupena: 60min	Talde formala	Iraupena: 60min
Jarduera motak: ikasitakoa problemaren esparru jakinetan aplikatzea.			Gaitasunak IK.H.01. IK.H.03, IK.H.04, POI.K.05
			Ikaskuntza emaitzak I.E.03, I.E.07, I.E.08, I.E.09, I.E.010, I.E.011, I.E.12, I.E. 14, I.E.015
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Egitura narratiboa lantzea. - Landutakoa ikaslideei ahoz eta terminologia zuzena erabiliz komunikatzea. 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 10. Fitxa, fikziozko filmen egitura dramatikoa Moodlen. (ikus eranskina) Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - 10. fitxa Moodlen. Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. 		
Ekimen presentziala	Irakasleak <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. - 10 minutu: 10. fitxa aurkeztu. Konplexua denez, ariketa egiten hasten direnean zalantza ugari egongo dira. <i>La guerra</i> (2005), Luiso Berdejo eta Jorge Dorado film laburraren adibidea eskolan aurkeztuko du. - 20 minutu: talde formalek esleitutako film laburraren fitxa bete. - 10 minutu: zalantzak plazaratu. Ikasleak/ek <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: adi egon. - 10 minutu: azalpenak entzun. Zalantzak plazaratu. - 20 minutu: 10. fitxari betetzen. - 20 minutu: zalantzak galdetu. 		
Entregatu beharrekoa: eskola orduan deus.		Epea:	
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formaletan egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - 10. fitxa bete. 		
Entregatu beharrekoa: 10. fitxa Modlera igo.		Epea: 11. saioa baino egun bat lehenago.	

MATERIALA		
10. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 7
		Hilabete/astea: Urria/4

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikusi eranskinak)

10. fitxa. Fikziozko film laburren egitura dramatiko

Egitura dramatiko definitzeko orduan, honako galderak hartu behar dira kontuan:

- Zein da film labur honen egitura dramatiko? Zein da aurkezpena? Zein garapena? Eta zein amaiera?
- Noiz eta nola ematen da lehen biraketa? Eta bigarrena? Zein da klimaxa?
- Aurreko galderen erantzunak sinopsi modura aurkeztu dezakezu? Hots, istorioaren aurkezpen, korapilo eta amaiera eta ematen diren bi biraketa eta klimaxa idatziz azaldu.
- Zein da istorio honen egitura dramatikoaren ezaugarri indartsuena? Eta ahulena?

Oharra: pertsonaien izenak lehenago aipatzen direnean aktoreen izen abizenak jarri behar dira parentesi artean.

Zalantzak baldin badituzue, idatzi eta komentatuko ditugu hurrengo eskola egunean.

Zeren arabera definitzen da fikziozko film labur baten egitura narratiboa? Denboratasuna. Sekuentziak eta eszenak.			
11. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 8	Hilabete/astea: azaroa/1
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formala	Iraupena: 60min	Talde formala	Iraupena: 120min
Jarduera motak: taldeak gai bat ikaskideen aurrean laburki aurkezten du. Talde guztiek gaia komunean jarri eta eztabaidatu. Informazioa eta iturriak bilatu. Ikasitakoa problemaren esparru jakinetan aplikatzea. Talde bakoitzak ikasitakoa baloratu eta bigarren talde baten lana zuzentzerakoan aplikatu.		Gaitasunak IK.H.01. IK.H.03, IK.H.04, POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak I.E.03, I.E.07, I.E.08, I.E.09, I.E.010, I.E.011, I.E.12, I.E. 14, I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Egitura narratiboaren inguruan dauden zalantzak argitzea. - Ikasleek elkarri zuzentzeko duten gaitasuna frogatzea. - Landutakoa ikaskideei ahoz eta terminologia zuzena erabiliz komunikatzea. 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 10. fitxa guztiak osatuta Moodlen (ikus eranskina) - 11. fitxa, egitura narratiboa (ikus eranskina). Hau ere fitxa konplexua da. Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - 11. fitxa Moodlen. Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. 		
Ekimen presentziala	Irakasleak <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Aurkezpena egingo duen taldea izendatu. - 10 minutu: talde formal batek 10. fitxa, aurkeztuko du eta irakasleak zuzenketak egingo dizkio. - 10 minutu: 11. fitxa aurkeztu, konplexua denez zalantzak egongo dira. - 15 minutu: 11. fitxa betetzen hasi. - 5 minutu: zuzendu beharreko 10 fitxa taldeen artean banatu. Ikasleak/ek <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: adi egon. - 10 minutu: lana aurkeztu/ entzun. Zalantzak plazaratu. - 10 minutu: adi egon. - 15 minutu: 11. Fitxa betetzen hasi. - 5 minutu: talde bakoitzak zuzendu behar duen beste taldearen 10. fitxa jaso 		
Entregatu beharrekoa: eskola orduan deus.		Epea:	
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formaletan egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - Bigarren talde baten 10. fitxa laranjaz zuzendu. - 11. fitxa bete. 		
Entregatu beharrekoa: 10. fitxa irakasleari bidali, irakasleak zuzenketak egin eta egileei bidaliko die fitxa 15. saioan begiratzeko eta derrigorrezko tutoretzetan eztabaidatzeko. 11. fitxa Modlerara igo.		Epea: 11. saioa baino bi egun lehenago.	

MATERIALA			
11. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 8	Hilabetea/astea: azaroa/1

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikusi eranskinak)

11. fitxa. Fikziozko film laburraren egitura narratiboa

Egitura narratiboa definitzeko orduan, honako galderak hartu behar dira kontuan:

Ildo narratiboa

- Zein da filmaren protagonista? Zein da bere helburua? Lortzen al du?
- Non kokatzen dituzu gainontzeko pertsonaiak? Zer nolako harremanak dituzte protagonistarekin? Eta beraien artean?
- Zein da kontakizun honen atzean dagoen gaia? Zer irakasten digu?

Denboratasunaren antolamendua

- Denboratasuna kontuan hartuta, zein da gertaeren antolamendua? Hots, denboraren arabera, nola antolatzen dira gertaerak?
- Zenbat sekuentzia ditu kontakizunak? Zenbat eszena daude sekuentzia bakoitzeko? Kontakizunaren sekuentzia eta eszenen bereizketa egin dezakezue? Eta, egitura azaltzen duen, sekuentzia eta eszenak uztartzen dituen zerrindaketa, egin dezakezue?

Estrategia narratiboa

- Pertsonaiekin alderatuta, zenbat informazio jasotzen du ikusleak? Nork ematen dio informazio hori? Nola? Narratzailearen ahotsik dago? Zer nolako narratzailea da? Zein edo zeintzuk dira estrategia narratibo nagusia edo nagusiak?

Zalantzak baldin badituzue, idatzi eta komentatuko ditugu hurrengo eskola egunean.

Zeren arabera definitzen da fikziozko film labur baten muntaketa eta eszenaratzea?			
Eszena adierazgarri bat aukeratu eta analizatzeko oinarriak			
12. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 9	Hilabetea/astea Azaroa/2
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formala	Iraupena: 60min	Talde formala	Iraupena: 120min
Jarduera motak: Jarduera motak: taldeak gai bat ikaskideen aurrean laburki aurkezten du. Talde guztiak gaia komunean jarri eta eztabaidatu. Informazioa eta iturriak bilatu. Ikasitakoa problemaren esparru jakinetan aplikatzea. Talde bakoitzak ikasitakoa baloratu eta bigarren talde baten lana zuzentzerakoan aplikatu.		Gaitasunak IK.H.01. IK.H.03, IK.H.04, POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak I.E.03, I.E.07, I.E.08, I.E.09, I.E.010, I.E.011, I.E.12, I.E.14, I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Muntaketa eta eszenaratzearen inguruan dauden zalantzak argitzea. - Ikasleek elkarri zuzentzeko duten gaitasuna frogatzea. - Landutakoa ikaskideei ahoz eta terminologia zuzena erabiliz komunikatzea. 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 11. fitxa guztiak osatuta Moodlen (ikus eranskina) - 12. fitxa, ez-fikziozko film laburraren muntaketa eta eszenaratzea. Moodlen (ikus eranskina). Hau ere fitxa konplexua da. Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - 12. fitxa Moodlen. Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. 		
Ekimen presentziala	Irakasleak <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Aurkezpena egingo duen taldea izendatu. - 10 minutu: talde formal batek 11. fitxa, aurkeztuko du eta irakasleak zuzenketak egingo dizkio. - 25 minutu: 12. Fitxa aurkeztu, konplexua da oso. Ikasleek lanean hasiko dira. - 5 minutu: zuzendu behar duten 11. fitxen banaketa egin Ikasleak/ek <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: adi egon. - 10 minutu: lana aurkeztu/ entzun. Zalantzak plazaratu. - 25 minutu: azalpenak entzun. 12. Fitxa betetzen hasi. - 5 minutu: talde bakoitzak zuzendu behar duen beste taldearen 11. fitxa jaso. 		
Entregatu beharrekoa: eskola orduan deus.		Epea:	
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formaletan egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - Bigarren talde baten 11. fitxa laranjaz zuzendu. - 12. fitxa bete. 		
Entregatu beharrekoa: 11. fitxa irakasleari bidali, irakasleak zuzenketak egin eta egileei bidaliko die fitxa 15. saioan begiratzeko eta derrigorrezko tutoretzetan eztabaidatzeko. 12. fitxa Modlera igo.		Epea: 13. saioa baino egun bat lehenago.	

MATERIALA			
12. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 9	Hilabete/astea

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikus eranskinak)

12. fitxa. Fikziozko film laburraren muntaketa eta eszenaratzea.

Eszenaratzea eta muntaketa eta definitzeko orduan, honako galderak hartu behar dira kontuan:

Eszenaratzea

- Oro har, nolakoa da kontakizunean erabiltzen den argiztapena? Une, edo, eszena zehatzen batean, bortizki aldatzen da joera nagusi hau? Zergatik?
- Nolakoak dira dekoratuak eta jantziak?
- Oro har, narrazioaren helburuekin bat datoz eszenaratzearen ezaugarriak? Zergatik?

Muntaketa

- Eszenen arteko denbora harremanak adierazteko, zer nolako iraganbide mota daude? Eta eszena baten espazioa antolatzeke orduan?
- Oro har, zeintzuk dira irudi eta soinuen artean dauden harremanak? Bereiziki deigarria edo adierazgarria den soinu eta irudiaren arteko kudeaketaren bat aipatuko zenukete?
- Muntaketa narrazioaren mesedetan pentsatuta dago? Zergatik?

Oharra: aurreko bi atalen erantzunak uztartu behar dituzue. Hots, eszenaratzea eta muntaketa istorioaren mesedetan daudela azaldu.

Eszena nagusiaren analisia

- Kontakizunaren eszena edota une adierazgarri bat (edo adierazgarriena) aukeratu, (honekin arazorik balego, film labur osoaren deskribapena egitea ere posiblea da) eta, azaldu nola eta zergatik antolatzen duen zuzendariak testua; eta, baita ere, zergatik aukeratu duen testua antolatzea, egin duen moduan (planifikazioaren atzean dagoen helburua).

Zalantzak baldin badituzue, idatzi eta komentatuko ditugu hurrengo eskola egunean.

Zeren arabera definitzen da ez fikziozko film labur baten egitura dramatiko eta narratiboa?

Aurkezpen, korapilo eta amaiera / Bloke tematikoak				
13. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 10	Hilabetea/astea	Azaroa/3
Presentziala		Ez presentziala		
Talde formala	Iraupena: 60min	Talde formala	Iraupena: 120min	
Jarduera motak: Jarduera motak: taldeak gai bat ikaskideen aurrean laburki aurkezten du. Talde guztiek gaia komunean jarri eta eztabaidatu. Informazioa eta iturriak bilatu. Ikasitakoa problemaren esparru jakinetan aplikatzea. Talde bakoitzak ikasitakoa baloratu eta bigarren talde baten lana zuzentzerakoan aplikatu.			Gaitasunak IK.H.01. IK.H.03, IK.H.04, POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak I.E.03, I.E.07, I.E.08, I.E.09, I.E.010, I.E.011, I.E.12, I.E. 14, I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Ez fikziozko film laburren egitura narratiboari buruzko zalantzak argitzea. - Ikasleek elkarri zuzentzeko duten gaitasuna frogatzea. - Landutakoa ikaskideei ahoz eta terminologia zuzena erabiliz komunikatzea. 			
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 12. fitxa guztiak osatuta Moodlen (ikus eranskina) - 13. fitxa, ez-fikziozko film laburraren egitura dramatikoa eta narratiboa. Moodlen (ikus eranskina). Hau ere fitxa konplexua da. Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua. - 13. fitxa Moodlen. Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. 			
Ekimen presentziala	Irakasleak <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Aurkezpena egingo duen taldea izendatu. - 10 minutu: talde formal batek 12. fitxa, aurkeztuko du eta irakasleak zuzenketak egingo dizkio. - 25 minutu: 13. Fitxa aurkeztu, konplexua da oso. Ikasleek lanean hasiko dira. - 5 minutu: zuzendu behar duten 12. fitxen banaketa egin Ikasleak/ek <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: adi egon. - 10 minutu: lana aurkeztu/ entzun. Zalantzak plazaratu. - 25 minutu: azalpenak entzun. 13. Fitxa betetzen hasi. - 5 minutu: talde bakoitzak zuzendu behar duen beste taldearen 12. fitxa jaso. 			
Entregatu beharrekoa: eskola orduan deus.		Epea:		
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formaletan egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - Bigarren talde baten 12. fitxa laranjaz zuzendu. - 13. fitxa bete. 			
Entregatu beharrekoa: 12. fitxa irakasleari bidali, irakasleak zuzenketak egin eta egileei bidaliko die fitxa 15. saioan begiratzeko eta derrigorrezko tutoretzetan eztabaidatzeko. 13. fitxa Modlera igo.		Epea: 14. saioa baino egun bat lehenago.		

MATERIALA			
13. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 10	Hilabetea/astea azaroa 3

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikus eranskinak)

13. fitxa. Ez-fikziozko film laburraren egitura dramatiko eta narratiboa

Ez-fikziozko film laburraren egitura dramatiko eta narratiboa definitzeko orduan, honako galderak hartu behar dira kontuan:

Egitura dramatiko

- Zein da film labur honen egitura dramatiko? Zein da aurkezpena? Zein garapena? Eta zein amaiera?
- Noiz eta nola ematen da lehen biraketa? Eta bigarrena? Zein da klimaxa?
- Aurreko galderen erantzunak sinopsi modura aurkeztu dezakezue? Hots, istorioaren aurkezpen, korapilo eta amaiera; eta baita, ematen diren bi biraketa, eta, klimaxa idatziz azaldu behar dituzue.
- Zein da istorio honen egitura dramatikoaren ezaugarri indartsuena? Eta ahulena?
- Errealitatek eratorritako istorioa dela kontuan hartu. Fikzioaren tresnak ereuztarten ditu.

Egitura narratiboa

Parte hartzaileak

- Zein da filmaren protagonista? Zein da bere rola?
- Zeintzuk dira gainontzeko parte hartzaileak? Zein da beraien rola? Non kokatzen dituzu?
- Zein da filmak plazaratzen duen arazoa? Eta konponbidea?
- Zein da kontakizun honen atzean dagoen gaia? Irakurketa

Bloke tematikoen egitura

- Zeintzuk dira lan honen bloke tematikoak? Nola antolatzen dira?
- Zer nolako argudiatzea dago bloke bakoitzaren atzean?
- Nola antolatzen da bloke bakoitza? Zer nolako elementuak jartzen ditu elkarren ondoan aipatu ideia eraikitzeko?
- Testuak, orokorrean, argudiatze bat eraikitzen duela kontuan hartuta, zein da irakurketa hau egiteko, hasieratik amaierara zine-zuzendariak antolatu duen ibilbidearen egitura? (Gogoratu: bloke bakoitzak eraikitzen duen ideia, ibilbidean ematen den urrats bat besterik ez da, kate-maila bat).
- Oro har, zein da antolamendu honen ondorioz eraikitzen den irakurketa?

Estrategia narratiboa

- Mundu historikoaren pertsonaiekin alderatuta, zenbat informazio jasotzen du ikusleak?
- Nork ematen dio informazio hori? Narratzailea dago? Zer nolakoa da?
- Zein edo zeintzuk dira estrategia narratibo nagusiak?

Zalantzak baldin badituzue, idatzi eta komentatuko ditugu hurrengo eskola egunean.

Zeren arabera definitzen da ez fikziozko film labur baten muntaketa eta eszenaratzea?			
14. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 11	Hilabetea/astea: azaroa/4
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formala	Iraupena: 60min	Talde formala	Iraupena: 120min
Jarduera motak: taldeak gai bat ikaskideen aurrean laburki aurkezten du. Talde guztiek gaia komunean jarri eta eztabaidatu. Informazioa eta iturriak bilatu. Ikasitakoa problemaren esparru jakinetan aplikatzea. Talde bakoitzak ikasitakoa baloratu eta bigarren talde baten lana zuzentzerakoan aplikatu.		Gaitasunak IK.H.01. IK.H.03, IK.H.04, POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak I.E.03, I.E.07, I.E.08, I.E.09, I.E.010, I.E.011, I.E.12, I.E. 14, I.E.015	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Ez fikziozko film laburren egitura narratiboa, muntaketa eta eszenaratzeari buruzko zalantzak argitzea. - Ikasleek elkarri zuzentzeko duten gaitasuna frogatzea. - Landutakoa ikaskideei ahoz eta terminologia zuzena erabiliz komunikatzea. 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 13. fitxa guztiak osatuta Moodlen (ikus eranskina) - 14. fitxa bete, ez fikziozko film laburren muntaketa eta eszenaratzea. - Txostena idazteko gida dokumentua (ikus eranskina). Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua bete. - Txostena idazteko gida dokumentua. Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. 		
Ekimen presentziala	Irakasleak <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Aurkezpena egingo duen taldea izendatu. - 10 minutu: talde formal batek 13. fitxa, aurkeztuko du eta irakasleak zuzenketak egingo dizkio. - 25 minutu: 13. Fitxa aurkeztu, konplexua da oso. Ikasleek lanean hasiko dira. - 5 minutu: zuzendu behar duten 14. fitxen banaketa egin Ikasleak/ek <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: adi egon. - 10 minutu: lana aurkeztu/ entzun. Zalantzak plazaratu. - 25 minutu: azalpenak entzun. 14. Fitxa betetzen hasi. - 5 minutu: talde bakoitzak zuzendu behar duen beste taldearen 13. fitxa jaso. 		
Entregatu beharrekoa: eskola orduan deus.		Epea:	
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formalean egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte amaieran entregatu behar duen jarraipen dokumentua bete. - Bigarren talde baten 13. fitxa laranjaz zuzendu. 		
Entregatu beharrekoa: 13. irakasleari bidali, irakasleak zuzenketak egin eta egileei bidaliko die fitxa 15. saioan begiratzeko eta derrigorrezko tutoretzetan eztabaidatzeko. 14. fitxa Modlera igo.		Epea: 15. saioa baino egun bat lehenago.	

MATERIALA			
14. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 11	Hilabete/astea: azaroa/4

TALDE FORMALAREN DOKUMENTUA. LANAREN JARRAIPENERAKO ASTEKO FITXA (ikus eranskinak)

14. fitxa. Ez-fikziozko film laburren muntaketa eta eszenaratzea

Ez-fikziozko film laburren eszenaratzea eta muntaketa definitzeko orduan, jarraian azaltzen diren galderak hartu behar dira kontuan. Hori bai, atal honen idazkuntza egin baino lehen, bi ohar garrantzitsuei so egin behar diezue:

1. Film laburraren bloke tematiko bakoitzeko, "eszenaratzearen" (baldin badago) eta muntaketaren ezaugarriak, eraiki nahi den argudio zehatzaren mesedetan erabiltzen direla azaldu behar da testuan. Hots, ezaugarrien aukeraketa guztiak, nahita, propio eginda daudela ondo adierazi behar du testuak. Aurrekoaren ondorioz, txostena idazteko orduan, aurreko puntuan eta hemen azaltzen diren informazioak, ez errepikatzen ahalegindu. Zaila da, baina ariketaren atal garrantzitsua dugu hau.
2. Inportanteena: nola egituratzen da argudiatzea hemen? Hots, blokeen antolamenduaren eta eszenaratzearen ezaugarriek zer nolako mundu irakurketa ondorioztatzen dute?

Eszenaratzea (baldin badago, noski)

- Oro har, nolako da kontakizunean erabiltzen den argiztapena? Eta bloke bakoitzekoa?
- Oro har, nolakoak dira lekuko edota elkarrizketatuen arropak, eta, elkarrizketak egiten diren lekuak, "dekoratuak"? Eta bloke bakoitzekoak?

Muntaketa

- Zer nolako muntaketa mota dago, bloke ezberdinak elkarren ondoan jartzeko orduan?
- Muntaketa frogagarria erabiltzen da hemen? Zeintzuk dira muntaketa frogagarriak erabiltzen dituen errekurtsuak?
- Nola adierazten da, adierazten bada, narratzailearen presentzia?
- Zeintzuk dira testuak bloke bakoitzean erabiltzen dituen baliabideak?

15. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 11		Hilabetea/astea	Azaroa/4
Presentziala			Ez presentziala		
Talde formala	Iraupena: 60min	T.F.	Iraupena: lana amaitu, 300min /Aurkezpena prestatu, 180m		
Jarduera motak: taldeak gai bat ikaskideen aurrean laburki aurkezten du. Talde guztiek gaia komunean jarri eta eztabaidatu. Informazioa eta iturriak bilatu. Ikasitakoa problemaren esparru jakinetan aplikatzea. Talde bakoitzak ikasitakoa baloratu eta bigarren talde baten lana zuzendu.				Gaitasunak IK.H.01. IK.H.03, IK.H.04, POI.K.05 Ikaskuntza emaitzak I.E.03, I.E.07, I.E.08, I.E.09, I.E.010, I.E.011, I.E.12, I.E. 14, I.E.015.	
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Txostena idazteko gida dokumentua buruzko azken zalantzak argitzea. - Ikasleek elkarri zuzentzeko duten gaitasuna frogatzea. - Landutakoa ikaskideei ahoz eta terminologia zuzena erabiliz komunikatzea. 				
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - 14. fitxa moodlen. - Txostena idazteko gida dokumentu osoa. - Aurkezpenerako egutegia (ikusi eranskina) Ez presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua bete eta amaitu. - Txostena idazteko gida dokumentu osoa. - Aurkezpena egiteko materiala (libre). Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek eramangarria ekarri behar dute eskolara. Moodle. 				
Ekimen presentziala	Irakasleak <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Aurkezpena egingo duen taldea izendatu. - 10 minutu: talde formal batek 14. fitxa, aurkeztuko du eta irakasleak zuzenketak egingo dizkio. - 10 minutu: txostenaren azalpenak eman. - 20 minutu: talde bakoitzari dagozkion 10, 11, 12, 13 eta 14 fitxen bigarren zuzenketa banatu. Ikasleak/ek <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: adi egon. - 10 minutu: lana aurkeztu/ entzun. Zalantzak plazaratu. - 10 minutu: azalpenak entzun. - 20 minutu: talde bakoitzak dagozkion 10, 11, 12, 13 eta 14 fitxen bigarren zuzenketa jaso eta komunean jartzen du. 				
Entregatu beharrekoa: eskola orduan deus.			Epea:		
Ekimen ez presentziala	Ikasleek talde formaletan egin beharreko lana: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua bete. - Txostenaren behin betiko bertsioa idatzi. - Aurkezpenerako materiala prestatu. Aurkezpena prestatu. 				
Entregatu beharrekoa: <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen dokumentua bete entregatu eskura eta Moodlen. - Txostenaren behin betiko bertsioa idatzi eta entregatu eskura eta Moodlen. OHARRA: Jarraipen dokumentua eta Txostena entregatzeko epea abenduaren 2. asteko ostirala izango da. Hots, ikasturteko 13. astean. Bi dokumentu hauek amaitzeko 300 minutu dituzte, bi asteetan nahi duten moduan banatzeko. Hori bai, 12. astean derrigorrezko tutoretzetara joan behar dute, zalantzak argitu ahal izateko. Aurkezpenerako materiala ez da entregatu behar. Materiala prestatzeko eta aurkezpen bera prestatzeko 180 minutu dituzte. 14. astea dute bi lan hauek egiteko.					

MATERIALA		
15. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika	Ikasturte astea: 11 Hilabete/astea

TXOSTENAREN GIDA OSOA : <u>KIMUAKI BURUZKO TXOSTEN IDATZIA</u>

LANAREKIN HASI BAINO LEHEN, OHAR BATZUK:

- Aurkeztu dugun problema nagusiari erantzutea da, idatzizko txosten honen helburua. Hortaz, jarraian egingo duzun fikziozko eta ez fikziozko film laburren analisia amaitu ondoren, problemaren planteatzen den galdera eragile, zein azpi-galderei, erantzuten dion azalpen-testua idatzi behar duzue. Hots, lan prozesuaren ondorioa laburtzen duen testua izango da hau.

Zeintzuk dira film labor batek bete behar dituen ezaugarriak *Kimuak* egitasmoan aukeratua izateko?

- Zeintzuk dira fikziozko ikus-entzunezko testuen ezaugarriak eta osagaiak?
- Zeintzuk dira ez fikziozko ikus-entzunezko testuen ezaugarriak eta osagaiak?
- Zeintzuk dira ikus-entzunezko fikziozko eta ez fikziozko testuak sailkatzeko irizpideak?
- Idazkuntza estiloari dagokionez, honakoak dira arauak:
 - letra mota, Arial 11, testuan. Izenburuak: Arial 12. Mailaketa: - **IZENBURUA BAT , 1. Izenburua bi, 1.1. Izenburua hiru.** Testua justifikatuta eta sangriarik gabeko paragrafoak. Paragrafo artean lerro-arteke tarte sinplea.
 - Irudiak txertatzen badira, argazki oinetan agertuko dira: filmaren izenburua, zuzendariaren izena eta lehen abizena, eta, urtea.
 - Aipamenak egiten badira, letra larriz azalduko dira. Bibliografiarako arauak: abizenak (letra larriz), egilearen izena. Izenburua (letra etzanez), argitalpen zenbakia, hiria: argitaletxea, urtea; orriak.
- Lehen orrian agertuko dira lanaren izenburua eta taldekideen izena eta bi abizenak. Ondorengo orrialdean, aurkibidea.

LANAREN EDUKIEN AURKIBIDEA**1. Sarrera:**

Zer da *Kimuak*? Nola funtzionatzen du? Zein izan da programaren garapena? Zeintzuk izan daitezke arrakastaren arrazoi nagusiak? Zeintzuk izan dira eta zergatik film laburrik aipagarrienak? Zeintzuk dira txostena idazteko aukeratu dituzuen fikziozko eta ez fikziozko film laburrak?

2. Fikziozko film laburra**2.1. Definizioa**

- Fitxa teknikoa.
- Filmaren ibilbidea, lortu duen oihartzuna eta zuen ustez ezaugarriak aipagarrienak.
- Zuzendariaren profila eta eskarmentua.

2.2. Egitura dramatiko

- Zein da film labor honen egitura dramatiko? Zein da aurkezpena? Zein garapena? Eta zein amaiera?
- Noiz eta nola ematen da lehen biraketa? Eta bigarrena? Zein da klimaxa?
- Aurreko galderen erantzunak sinopsi modura aurkeztu dezakezu? Hots, istorioaren aurkezpen, korapilo eta amaiera eta ematen diren bi biraketa eta klimaxa idatziz azaldu.
- Zein da istorio honen egitura dramatikoaren ezaugarriak indartsuena? Eta ahulena?

2.3. Egitura narratiboa

Ildo narratiboa

- Zein da filmaren protagonista? Zein da bere helburua? Lortzen du?
- Non kokatzen dituzu gainontzeko pertsonaiak? Zer nolako harremanak dituzte protagonistarekin? Eta beraien artean?
- Zein da kontakizun honen atzean dagoen gaia? Zer irakasten digu?

Denboratasunaren antolamendua

- Denboratasuna kontuan hartuta, zein da gertaeren antolamendua? Hots, denboraren arabera nola antolatzen dira gertaerak?
- Zenbat sekuentzia ditu kontakizunak? Zenbat eszena daude sekuentzia bakoitzeko? Kontakizunaren sekuentzia eta eszenen bereizketa egin dezakezue? Eta egitura azaltzen duen sekuentzia eta eszenak uztartzeko dituen zerrendaketa egin dezakezue?

Estrategia narratiboa

- Pertsonaiekin alderatuta zenbat informazio jasotzen du ikusleak? Nork ematen dio informazio hori? Nola? Narratzailearen ahotsa dago? Zer nolako narratzailea da? Zein edo zeintzuk dira estrategia narratibo nagusia edo nagusiak?

2.4. Eszenaratzea eta muntaketa

Eszenaratzea

- Oro har, nolakoa da kontakizunean erabiltzen den argiztapena? Une do eszena zehatzen batean bortizki aldatzen da joera nagusia? Zergatik?
- Nolakoak dira dekoratuak eta jantziak?
- Kolorea edo zuri beltzean errodatura dago?
- Oro har, narrazioaren helburuekin bat datoz eszenaratzearen ezaugarriak? Zergatik?

Muntaketa

- Zer nolako muntaketa mota daude eszenen arteko denbora harremanak adierazteko? Eta eszena baten espazioa antolatzeko orduan?
- Oro har, zeintzuk dira irudi eta soinuen artean dauden harremanak? Bereiziki deigarria edo adierazgarria den soinu eta irudiaren arteko kudeaketaren bat aipatuko zenukete?
- Muntaketa narrazioaren mesedetan pentsatuta dago? Zergatik?

Oharra: aurreko bi atalen erantzunak uztartu behar dituzue. Hots, eszenaratzea eta muntaketa istorioaren mesedetan daudela azaldu.

2.5. Eszena nagusiaren analisia

- Kontakizunaren eszena bat, edota, une adierazgarri bat (edo adierazgarriena) aukeratu (honekin arazorik balego, posiblea da ere, film labur osoaren deskribapena egitea), eta, azaldu nola eta zergatik antolatzen duen zine-zuzendariak testua, antolatzen duen moduan (planifikazioaren atzean dagoen helburua).

3. Ez Fikziozko film laburra

3.1. Definizioa (izenburua, urtea, zuzendaria)

- Fitxa teknikoa.
- Filmaren ibilbidea, lortu duen oihartzuna eta zuen ustez ezaugarriak aipagarriak.
- Zuzendariaren profila eta eskarmentua.

3.2. Egitura dramatiko

- Zein da film labur honen egitura dramatiko? Zein da aurkezpena? Zein garapena? Eta zein amaiera?
- Noiz eta nola ematen da lehen biraketa? Eta bigarrena? Zein da klimaxa?
- Aurreko galderen erantzunak sinopsi modura aurkeztu dezakezu? Hots, istorioaren aurkezpen, korapilo eta amaiera eta ematen diren bi biraketa eta klimaxa idatziz azaldu.
- Zein da istorio honen egitura dramatikoaren ezaugarri indartsuena? Eta ahulena?
- Errealitatek eratorritako istorioa dela kontuan hartu.

3.3. Egitura narratiboa

Parte hartzaileak

- Zein da filmaren protagonista? Zein da bere rola?
- Zeintzuk dira gainontzeko parte hartzaileak? Zein da beraien rola? Non kokatzen dituzu?
- Zein da filmak plazaratzen duen arazoa? Eta konponbidea?
- Zein da kontakizun honen atzean dagoen gaia? Irakurketa

Bloke tematikoen egitura

- Zeintzuk dira lan honen bloke tematikoak? Nola antolatzen dira?
- Zer nolako argudiaketa dago bloke bakoitzaren atzean?
- Nola antolatzen da bloke bakoitza? Zer nolako elementuak jartzen ditu elkarren ondoan aipatu ideia eraikitzeko?
- Testuak orokorrean argudiaketa bat eraikitzen duela kontuan hartuta, zein da irakurketa hau egiteko ibilbidearen antolamendua hasieratik amaierara? (Gogoratu, bloke bakoitzak eraikitzen duen ideia urrats bat izango da)
- Oro har, zein da antolamendu honen ondorioz eraikitzen den irakurketa?

Estrategia narratiboa

- Mundu historikoaren pertsonaiekin alderatuta zenbat informazio jasotzen du ikusleak?
- Nork ematen dio informazio hori? Narratzailea dago? Zer nolakoa da?
- Zein edo zeintzuk dira estrategia narratibo nagusiak?

3.4. Eszenaratzea eta muntaketa

Ez-fikziozko film laburren eszenaratzea (baldin badago) eta muntaketa definitzeko orduan, jarraian azaltzen diren galderak hartu behar dira kontuan. Hori bai, atal honen idazkuntza egin baino lehen, bi ohar garrantzitsuei so egin behar diezue:

1. Film laburraren bloke tematiko bakoitzeko, eszenaratzearen eta muntaketaren ezaugarriak, eraiki nahi den argudio zehatzaren mesedetan erabiltzen direla azaldu behar du testuak. Hots, ezaugarrien aukeraketa guztiak nahita, propio, eginda daudela ondo adierazi behar du testuak. Aurrekoaren ondorioz, txostena idazteko orduan, aurreko puntuan eta hemen azaltzen diren informazioak ez errepikatzen ahalegindu behar zarete. Zaila da, baina ariketaren atal garrantzitsua dugu hau.
2. Inportanteena: nola egituratzen da argudiatzea hemen? Hots, blokeen antolamenduaren eta eszenaratzearen ezaugarriek zer nolako mundu irakurketa ondorioztatzen dute?

Muntaketa

- Zer nolako iraganbide mota dago bloke ezberdinak elkarren ondoan jartzeko orduan?
- Muntaketa frogagarria erabiltzen da hemen? Zeintzuk dira muntaketa frogagarriak erabiltzen dituen errekurtsioak?
- Nola adierazten da, adierazten bada, narratzailearen presentzia?
- Zeintzuk dira testuak bloke bakoitzean erabiltzen dituen baliabideak?

Eszenaratzea (baldin badago)

- Oro har, nolakoa da kontakizunean erabiltzen den argiztapena? Eta bloke bakoitzeko?
- Oro har, nolakoak dira lekuko edota elkarrizketatuen arropak eta elkarrizketak egiten diren lekuak, "dekoratuak" ? Eta bloke bakoitzeko?

4. Txostenaren ondorioak

Analizatutako film laburrak kontuan hartuta, zeintzuk dira film labur batek bete behar dituen ezaugarriak *Kimuak* egitasmoan aukeratua izateko?

- Zeintzuk dira fikziozko ikus-entzunezko testuen ezaugarriak eta osagaiak?
- Zeintzuk dira ez fikziozko ikus-entzunezko testuen ezaugarriak eta osagaiak?
- Zeintzuk dira ikus-entzunezko fikziozko eta ez fikziozko testuak sailkatzeko irizpideak?

5. Bibliografia

AURKEZPEN EGUTEGIA

14. saioan, Moodlen eskegiko da taldeen aurkezpenen egutegia.

Lanen aurkezpena eta POIren gaineko ebaluazioa			
16. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika eta magistrala	Ikasturte astea: 15	Hilabetea/astea: abendua/4
Presentziala		Ez presentziala	
Talde formala	Iraupena: 180min	Talde formala	Iraupena: 0min
Jarduera motak: taldeak egindako lanaren emaitzak ikaskideen aurrean aurkezten ditu. Gainontzeko taldeetako ikasleek galderak plazaratzen dizkiete.			Gaitasunak IK.H.01. IK.H.04, Ikaskuntza emaitzak I.E.03, I.E.13, I.E. 14,
Helburu Didaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Talde formalak suposatzen dituen konpromisoak onartzea eta bereganatzea. - Ikasleek elkarri zuzentzeko duten gaitasuna frogatzea. - Landutakoa ikaskideei ahoz eta terminologia zuzena erabiliz komunikatzea. 		
Materialak	Irakasleak: Presentziala: <ul style="list-style-type: none"> - POIri buruzko inkesta laburra Moodlen. (ikus eranskina) Ez presentziala: Ikasleak: <ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpenarako materiala, PPT-a,.... 		
Ekimen presentziala	<p>Hiru ordu edo bloketan eta bi egunetan egingo da. Lehenengo egunean jarraian dauden bi ordutan eta hirugarrenean ordu bat. Lehenengo egunean 7 taldeek 10 minutu izango dituzte film laburren aurkezpena egiteko. Bigarren egunean irakasleak bi film ez laburren aurkezpena zozketatuko du. Aukeratutako bi taldeek bi ez fikziozko filmen aurkezpena egingo dute.</p> <p>Irakasleak</p> <p>Lehen eguna, bi ordu jarraian: fikziozko film laburren analisiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Aurkezpenenak martxan jarri. - 40 minutu: aurkezpenak bideratu, denbora kontrolatu eta galdera tarteak ere. - 10 minutu: atsedena. - 50 minutu: aurkezpenak bideratu, denbora kontrolatu eta galdera tarteak ere. <p>Bigarren eguna, ordubete: ez fikziozko film laburren analisisa. Ondorio orokorrak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. Zozketa egin. - 30 minutu: aurkezpenak bideratu, denbora kontrolatu eta galdera tarteak ere. - 10 minutu: inkesta laburra pasa eta jaso. <p>Ikasleak/ek</p> <p>Lehen eguna, bi ordu jarraian: fikziozko film laburren analisiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: adi egon.. - 40 minutu: aurkezpena egin/aurkezpenak entzun/galderak. - 10 minutu: atsedena. - 50 minutu: aurkezpena egin/aurkezpenak entzun/galderak. <p>Bigarren eguna, ordubete: ez fikziozko film laburren analisisa. Ondorio orokorrak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - 10 minutu: zerrenda pasa. - 30 minutu: aurkezpena egin/aurkezpenak entzun/galderak. - 10 minutu: inkesta laburra pasa eta jaso. 		
Entregatu beharrekoa: inkesta.		Epea: azken egunean, eskola orduan.	
Ebaluazio mota: ebaluazio batugarria		Ebaluazioaren helburua:	
Ekimen ez presentziala	Ez dago		
Entregatu beharrekoa:		Epea:	

MATERIALA			
16. SAIOA	Irakaskuntza mota: ikasgela praktika eta magistrala	Ikasturte astea: 15	Hilabetea/astea:abendua/4

POIri butuzko INKESTA

JARRAITUTAKO METODOLOGIARI BURUZKO ERITZI INKESTA

Irakasgaien jarraitu diren zenbait metodologia-aspektuei buruz duzun eritzia emateko eskatzen dizugu. Zure erantzunak aztertuak izango dira, eta etorkizunean irakasgaia hobetzen lagunduko digu. Horregatik, behar duzun denbora eskeiniz, pentsatzen duzuna zintzoki adierazteko eskatzen dizugu. Eskerrik asko.

*Landu diren metodologiaren aspektu guztiak kontutan hartuz, izandako esperientziaren planteamendu eta garapenari buruzko zure **balorazio orokorra** da:*

- batere pozik
- apur bat pozik
- nahiko pozik
- oso pozik

Justifikatu zure balorazioa:

*Metodologia tradizionalagoekin **konparatuz**, balora ezazu zein neurritan uste duzun jarraitutako metodologiak **lagundu zaituela ikasten**:*

- gutxiago lagundu nau
- berdin lagundu nau
- gehiago lagundu nau
- askoz gehiago lagundu nau

*Balora ezazu zein neurritan uste duzun jarraitutako metodologiak **lagundu zaituela**:*

(“1” oso gutxi, “2” gutxi, “3” nahiko, “4” asko)

JARRAITUTAKO METODOLOGIARI BURUZKO ERITZI INKESTA				
Eduki teorikoak ulertzen	1	2	3	4
Teoria eta praktika artean erlazioak egiten	1	2	3	4
Irakasgaiaren edukiak elkar erlazionatzen ikusgegi integratu bat lortuz	1	2	3	4
Irakasgaiarekiko interesa eta motibazioa handitzen	1	2	3	4
Praktika profesionaleko egoerak aztertzen	1	2	3	4
Lanaren inguruan zure aldetik informazioa aurkitzen	1	2	3	4
Egoera erreal baten inguruan erabakiak hartzen	1	2	3	4
Arazoak ebazten edo egoera errealei soluzioak eskeintzen	1	2	3	4
Komunikazio gaitasunak garatzen (ahozkoa edo idatzizkoa)	1	2	3	4
Ikasteko autonomia garatzen	1	2	3	4
Zure ikasketarekiko jarrera partehartzailea hartzen	1	2	3	4
Zure talde lanerako gaitasunak garatzen	1	2	3	4
Praktika profesionalean behar diren gaitasunak garatzen	1	2	3	4
Ebaluaketa sistema egokia izan da metodologiarekiko	1	2	3	4
<p><i>Irakasleak eman dizun orientazioak, zure beharrak asetu al ditu?</i></p> <p><input type="checkbox"/> Gutxi</p> <p><input type="checkbox"/> Nahiko</p> <p><input type="checkbox"/> Asko</p> <p><input type="checkbox"/> Erabat</p>				

JARRAITUTAKO METODOLOGIARI BURUZKO ERITZI INKESTA

¿Aldatuko al zenuke zerbait? ¿Hobetzeko proposamenen bat bururatzen al zaizu?

Hurrengo irakasgairen batean aukeran izango bazenu, metodologia hau aukeratuko al zenuke?

Bai

Ez

2. EBALUAZIOA

2.1. Ebaluazio sistema

Sekuentzia didaktikoaren planifikazioak erakusten duen moduan, lortu nahi diren irakaskuntza-emaitzak neurtzeko, erabiltzen dira, ebaluazio hezigarria, hasierako ebaluazioa eta ebaluazio batugarria.

Taula 13. Sekuentzia didaktikoaren ebaluazio mota ezberdinen antolamendua eta garapena

EBALUAZIO HEZIGARRIA	
1.	Saioa. Egitasmoa eta Problemetan Oinarritutako Irakaskuntzaren plangintzaren aurkezpena.
HAISERAKO EBALUAZIOA	
2.	Saioa. Problemaren aurkezpena: zer dakigu <i>Kimuaki</i> buruz?
EBALUAZIO HEZIGARRIA	
3.	Saioa. Talde formal osatu eta lehen erronka: zeren arabera definitzen da film baten kalitatea?
4.	Saioa. Talde formal egonkortu / film laburren corpusa baloratu
5.	Saioa. Talde bakoitzak landuko duen film laburren esleipena adostu
6.	Saioa. Talde formalaren bigarren erronka: azpi-galdera eragileei erantzun. Nola analizatu behar dugu ikus-entzunezko testu bat? Zer ikasi behar dugu horretarako?
7.	Saioa. Talde formalaren bigarren erronka: azpi-galdera eragileei erantzun. Nola analizatu behar dugu ikus-entzunezko testu bat? Zer ikasi behar dugu horretarako?
8.	Saioa. Txostenaren sarrera idatzi: Problemaren testuingurua. Sarrera idazteko baliagarriak diren materialak: <i>Trípodoseko</i> artikulua, 4. fitxa. Film laburren fitxa teknikoa eta 6. fitxa. Zuzendarien eskarmentu profesionala. Hauekin batera aurrekoetan jasotako informazio guztia. Txostenaren sarrera derrigorrezko tutoretzetan zuzenduko den materiala da.
9.	Saioa. Gardentasunaren muntaketa. Eszena baten <i>découpagea</i> eta raccordaren legeak
10.	Saioa. Soinua eta irudiaren arteko harremanak identifikatu
11.	Saioa. Nola deskribatuko zenuke zure film laburraren egitura dramatikoa?
12.	Saioa. Zeren arabera definitzen da fikziozko film labor baten egitura narratiboa? Denboratasuna. Sekuentziak eta eszenak.
13.	Saioa. Zeren arabera definitzen da fikziozko film labor baten muntaketa eta eszenaratzea?
14.	Saioa. Zeren arabera definitzen da ez fikziozko film labor baten egitura dramatikoa eta narratiboa? Aurkezpen, korapilo eta amaiera / Bloke tematikoak
15.	Saioa. Zeren arabera definitzen da ez fikziozko film labor baten muntaketa?
16.	Saioa. Txostenaren idazkuntzarako azken hausnarketa.
DERRIGORREZKO TUTORETZAK	
-	Tutoretzetan irakasleak talde bakoitzak entregatu dituen materialen gaineko zuzenketak plazaratzen ditu (sarrera eta aurreko fasearen fitxak) eta ikasleekin sortutako zalantzak argitu. Aurkezpenarako aholkuak emango ditu irakasleak.
EBALUAZIO BATUGARRIA	
17.	Sesioa. Lanen aurkezpena. Ebaluatuko da taldeek egindako aurkezpena.
-	Taldeek idatziz entregatu duten txostena ebaluatu.

Bi dira ebaluazio batugarria egiteko irizpide nagusiak: ikasle talde bakoitzak lauhileko amaieran entregatzen duen idatzitako txostena, eta, lan honen gainean taldeak egiten duen aurkezpen publikoa. Sekuentziak erakusten duen moduan, saio gehienek helburua hezigarria da. Beti ere, ebaluazio batugarriaren txostena osatzeko, eta, aurkezpena egiteko, prestatu dira elkarren jarraian antolatu diren ekimenak. Are gehiago, sekuentziaren bigarren eta laugarren

faseetako saioek, entregatu behar den txostenaren atalekin zuzenki lotuta dauden ariketak edota lanak planteatzen dituzte. Honela, problemaren gainean idatzi behar duen txostenerako urratsak ematen ditu ikasle talde bakoitzak, eta, aldi berean, saio bakoitzean landutako emaitzak, talde osoarekin konpartitu eta okerrak zuzentzeko aukera izango du ere.

Gauza bera gertatzen da aurkezpenarekin. Ia sesio guztietan egiten den ekimena da, eta, aurkezpen txanden sistemaren bidez, bermatzen da aurkezpena talde guztiek behin baino gehiagotan egingo duten jarduera dela. Derrigorrezko tutoretzak dira ibilbidearen azken aurreko urratsa. Bertan, aipatu sesioetan landutako atalen zuzenketak planteatzen dizkio talde bakoitzari irakasleak. Zalantzak argitu ondoren, aurkezpenaren nondik norakoak zehazten dira. Idatziko lana eta aurkezpena prestatuko ditu Ikasle talde bakoitzak.

Ebaluazioaren azken fasean, 16. Saioan, euren lanen aurkezpena egingo dute taldeek. Idatzitako txostenak eta aurkezpenak ebaluatuko ditu irakasleak, eta, talde bakoitzari nota bat emango dio. Honekin batera, aipatu beharra dago, idatzitako txostenarekin batera, talde bakoitzaren jarraipen dokumentua jasoko duela irakasleak. Hezigarria da dokumentu honen ebaluazioa, eta, dudarik gabe, informazio oso baliagarria ematen dio irakasleari. Izan ere, sistema hau martxan jartzen duen lehen aldia dela kontuan hartuta, ikus dezake nola funtzionatu duten taldeek, eta, baita, jarduerak egiteko orduan, ikasleek behar izan duten denbora, izan dituzten zailtasunak, eta abar., ezagutu ditzake irakasleak. Egitasmoa zuzentzeko oso baliagarria da dokumentu hau.

2.2. Ebaluazio irizpideak

Ikasgaiaren gaitasunetik eratortzen diren ikaskuntza emaitzak, txostena, eta, aurkezpenaren, edukien arteko harremana zein den adierazten du ondoko taulak. Honen arabera definitzen dira, irakaskuntza-emaitza bakoitza eskuratu ote den jakiteko irizpideak.

Taula 14. Gaitasunak, ikaskuntza-emaizak, idatzitako txostena, eta aurkezpenaren arteko ebaluaziorako loturak

IKASGAIKO GAITASUNAK	IKASKUNTZA-EMAITZAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ADIERAZLEAK
IK.H.01. Ikus-entzunezko produktuen gaineko hausnarketa egiteko lan tresnak eskuratzea.	I.E.01. Ikus-entzunezko hizkuntzaren gaineko testu teorikoak eta entseguak ezagutzea, irakurtzea eta ulertzeko gaitasuna izatea.	- Ikaskuntza emaitza hauek bereziki lantzen dira txostenaren sarrera, eta, fikziozko, zein, ez fikziozko filmen definizioa egiterakoan. - Orokorrean, filmen analisia egiteko eta idazteko azalzerakoan, ikus-entzunezko terminologia ondo ezagutu eta aplikatu behar dute ikasleek..
	IE.02. Aipatu testuetatik ondorioztatutako ideia eta kontzeptu nagusiak zeintzuk diren identifikatzea eta ulertzea.	
	IE.03. Ikus-entzunezko produktuen gaineko hausnarketa egiterakoan kontzeptu eta printzipio nagusiak modu zuzenean aplikatzea.	
IK.H.03. Ikus-entzunezko berezko errekursoak eta teknikak ezagutzea.	I.E. 07. Ikus-entzunezko testuen osagai "morfologikoak" ezagutzea eta identifikatzea.	- Txostenaren fikziozko eta ez fikziozko film laburren eszenaratzearen eta muntaketaren analisia egitean analisian frogatzen dira hiru ikaskuntza-emaizta hauek.
	I.E. 08. Ikus-entzunezko testuen osagai sintaktikoak ezagutzea eta identifikatzea.	
	I.E. 09. Ikus-entzunezko fikziozko testuek eta ez fikziozko testuek dituzten eredu formalak ezagutzea.	
IK.H.04. Ikus-entzunezko testuak analizatzea, eztabaidatzea eta interpretatzea.	I.E. 010. Ikus-entzunezko testuen osagai morfologikoak, sintaktikoak eta eredu formalak fikziozko testuetan identifikatzea, analizatzea eta eraikitako esanahia interpretatzea.	- Bi irakaskuntza emaitza hauek menperatzen dituzten edo ez frogatzen dute ikasleek, txostenaren, fikziozko, eta, ez fikziozko, film laburren egitura dramatikoa, egitura narratiboa, eszenaratzearen eta muntaketaren analisia egitean eta ondorioak idazterakoan,.
	I.E. 011. Ikus-entzunezko testuen osagai morfologikoak, sintaktikoak eta eredu formalak ez fikziozko testuetan identifikatzea, analizatzea eta eraikitako esanahia interpretatzea.	
	IE. 012. Fikziozko eta ez fikziozko testuen gainean egindako analisiak idatziz modu zuzenean aurkeztea. Hots, idatzitako lanek ikus-entzunezkoen berezko kontzeptuak zuzenki adierazi behar dituzte.	-Ikasleek, irakaskuntza-emaizta hau menperatzen duten ala ez. erakusten du txostenaren idatzitako testuak.
	I.E. 013. Fikziozko eta ez fikziozko testuen gainean egindako analisiak hitz-jario eraginkor, argudiaketa zuzen eta ikusizko zein ikus-entzunezko baliabide egokiak erabilita publikoki aurkeztea.	
	I.E. 014. Publikoki egindako aurkezpenetan entzuleek egindako galdera edo iradokizunei modu zuzenean erantzutea eta eztabaida gidatzeko ahalmena izatea.	
POI.K.05.* Ekipoan lan egiteko gaitasuna eskuratzea.	I.E.015. Talde formalak osatu eta elkarrekiko dependentzia baikorra garatzeko estrategiei so egiten lan egin beharko dute ikasleek.	- Elkarrekin izandako ibilbidearen ebidentzia da taldearen jarraipen dokumentua.

2.3. Irakaslearen ebaluazio egutegia

Orain arte azaldu diren ebaluazio sistema eta irizpidez gain, ondoko taulan zehaztuta agertzen dira lauhilekoan zehar, irakasleak egin behar dituen ebaluazio mota ezberdinen egutegia, eta, batez ere, ebaluazio batugarriaren datak eta edukiak.

Taula 15. Irakasleak egin behar duen ebaluazioaren planifikazioa

EBALUAZIO HEZIGARRIA
- 2. saioa ez ezik, 1 saiotik, irailaren 2. astetik, 6. sesio bitartean, urriaren lehen astean, arazoaren testuingurua finkatzeko ekimenak burutuko ditu. Eskolan erabiliko duen materialak taldeen gogoeta bideratzea du helburu eta ez du horren zuzenketa batugarririk egin behar.
HASIERAKO EBALUAZIOA
- 2. saioan, irailaren 2. astean ikasleek lana hasi aurretik Kimuak-i buruz dakitena neurtuko da.
EBALUAZIO HEZIGARRIA
- Taldeek 7. saioan, urriaren lehen astean, aurkeztuko dioten txostenaren sarrera zuzendu behar du. Zuzenketa derrigorrezko tutoretzetan aurkeztuko die ikasleei, abenduaren lehen astean. - 8. eta 9. saioan, urriaren 2. eta 3. astean ebaluazio hezigarria dago. Trebeziak landuko dira baina ez dago zuzenketa batugarririk. - 10. saiotik, urriaren laugarren astean, 15. saioa bitartean, azaroaren laugarren astean, txostena idazteko zuzenki lotuta dauden materialak lantzen dira. Irakasleak saio bakoitzean ikasle talde batek beste bigarren baten lanaren gainean egindako lehen zuzenketa jasotzen du. Bigarren zuzenketa egin behar du 15. saiorako.
DERRIGORREZKO TUTORETZAK
- Abenduaren lehen astean, txostenaren sarrera eta laugarren fasean 10, 11, 12 eta 13. fitxen gainean egindako bigarren zuzenketen aurkezpena egingo du ikasleekin.
BEHIN BEHINEKO ZUZENKETAK ETA EBALUAZIO BATUGARRIA
- 16. saioan, abenduaren laugarren astean, lanen aurkezpena ebaluatuko du. Ondoren, taldeek entregatutako txostena. Ebaluazioaren nota ikasgaiaren atal ezberdinen notak azaltzen dituen dokumentuan argitaratuko da Moodlen. Izan ere, GAUREk nota orokorrerako aukera bakarrik ematen du. Praktiken ebaluazioaren berrikuskapena, azterketa teorikoaren berrikuskapenaren data berean egingo da.
BEHIN BETIKO NOTA
- Berrikuskapenaren ondoren behin betiko nota argitaratuko da aktetan

2.4. Ebaluazio batugarria egiteko errubrika

Ebaluazio batugarriaren errubrika definitu baino lehen, gogoratu behar da ikasgaiaren %30a balio duela Problemetan Oinarritutako Metodologiaren diseinuaren ezarpenak. Gainontzeko %70a, berriz, ebaluatuko da ikasgaiaren azterketa teorikoaren bidez. Era berean, ondoko taulan zehazten da, POI bidez ebaluatu behar den % 30portzentajearen banaketa.

Taula 16. Inplementazioari eskainitako ebaluazioaren batz bestekoen banaketa

Ebaluazio irizpideak	Notaren %
Ikasgaia gaintzeko derrigorrezkoa da, 14 gelako praktiketara, eta, egitasmoak hartzen dituen 6 eskola magistraletara, bertaratzea, eta, bertan parte hartzea (ariketak egin eta komunean jarri).	
14 gelako praktiketara eta egitasmoak hartzen dituen 6 eskola magistraletan garatzen den azken talde lana egitearen balioa da notaren %20a.	% 20
16. saioetan, ikasleek egin behar dituzten lanen aurkezpenek %10 balio dute.	%10
GUZTIRA:	%30

Guztira, ebaluazioaren %20a suposatzen du ikasleek taldeka idatzi behar duten Kimuaki buruzko txostenak, eta, lanaren aurkezpenak, berriz %10a. Jarraian azaltzen diren bi tauletan erakusten dira, txostenaren eta aurkezpenaren atal ezberdinei dagozkien batz bestekoak.

Taula 17. Txostena eta aurkezpenaren batz besteko balioen banakapena

TXOSTENAEN ATALAK	BATAZ BESTEKOEN BALIOA
Sarrera, 2.1. eta 3.1. Fikziozko eta ez fikziozko filmen definizioa	%5
2.2. Fikziozko film laburraren egitura dramatikoa	%10
2.3. Fikziozko film laburraren egitura narratiboa	%15
2.4. Fikziozko film laburraren eszenaratzea eta muntaketa, eta, 2.5. Eszena nagusiaren analisia	%25
3.2. Ez fikziozko film laburraren egitura dramatikoa	%10
3.3. Ez fikziozko film laburraren egitura narratiboa, eszenaratzea eta muntaketa.	%25
4. Txostenaren ondorioak	%10
Guztira	%100 (%20)
AURKEZPENA	
ikus-entzunezko terminologia modu zuzenean erabilita, azalpenak eta gainontzeko ikasleen galderari erantzun zuzenak emateko gaitasuna izatea.	%50
Aurkezpenerako prestatutako materiala	%50
Guztira	%100 (%10)

Aurreko taulan (17. taulan) azaltzen diren batz bestekoak kontuan hartuta, ondoko hiru taulek erakusten dituzte, bikain, nahikoa eta suspentsoa eskuratzeko erribriken irizpide zehatzak.

Taula 18. Bikain eskuratzeko kontuan hartzen diren irizpideak

BIKAIN LANDUTAKO EDUKIA
IDATZIKO TXOSTENAREN EDUKIAK
Sarrera, 2.1. eta 3.1. Fikziozko eta ez fikziozko filmen definizioa
<ul style="list-style-type: none"> - Kimuak film laburrei eta zuzendariei buruzko informazio osoa eta egokia izango du testuak. Hots, txostenak planteatzen dituen galderei eta zehaztutako ezaugarriei sakonki erantzun behar die dokumentuak. - Hemerrotekako, interneteko eta, batez ere, iturri bibliografikoetatik eratorritako datu aipagarri egokiak izango ditu. - Zuzen idatzita agertuko dira erreferentzia bibliografikoak eta aipuak. - Ikus-entzunezko soslai profesionalak eta filmaren ezaugarri tekniko guztiak zuzen azalduko ditu dokumentuak.
2.2. Fikziozko film laburraren egitura dramatiko
<ul style="list-style-type: none"> - Film laburren egitura dramatiko sinopsi moduan ondo idatzita azaldu behar du testuak. Aurkezpena, korapiloa eta amaiera; eta noski, hauen artean dauden biraketak eta klimaxa azalduko dira. Urrats eta une guzti hauek zuzenak izan behar dira. - Antzetzten duten pertsonaia filmean lehenengoz agertzen denean, aktoreen izen abizenak parentesi artean azalduko dira testuan.
2.3. Fikziozko film laburraren egitura narratiboa
<ul style="list-style-type: none"> - Protagonista eta gainontzeko pertsonaien rola eta harremanak ondo eta argi definituko ditu testuak. Honekin batera, argi adieraziko da protagonistak helburu nagusia lortzen duen edo ez eta horrek ondorioztatzen duen aldaketa pertsonala. - Gertaeren antolamendu denborala deskribatuko du testuak. Modu zuzenean azaldu behar dira denboratasunak ondorioztatzen dituen gertaeren arteko kateatzeak edo loturak. - Argi eta zuzentasun osoz ezberdinduko dira, sekuentzia narratiboen egitura eta sekuentzia bakoitza garatzeko film laburrak dituen eszenak. Egindako banaketa zuzena behar du izan, akatsik gabekoa. - Filmean dagoen estrategia narratiboa zuzentasunez azaldu behar da. Hots, nola eta nork ematen dion informazioa ikusleari. Honek ondorioztatzen duen esanahia ondo interpretatu behar dute ikasleek.
2.4. Fikziozko film laburraren eszenaratzea eta muntaketa, eta, 2.5. Eszena nagusiaren analisisa
<ul style="list-style-type: none"> - Filmak kontatzen duen istorio eta pertsonaien beharren arabera erabiltzen dituen eszenaratze eta muntaketaren ezaugarriak modu zuzen batean zehaztu behar ditu testuak. - Aukeratutako eszenaren kasuan, modu zuzen batean azaldu behar du testuak, zine-zuzendariak kontatu nahi duena kontatzeko aukeratu dituen ikus-entzunezko baliabideak zeintzuk diren, eta, nola antolatu dituen. Funtsezkoa da modu argi eta zuzen batean azaltzea testuan, egindako aukeraketa eta eraikitako esanahiaren arteko lotura.
3.2. Ez fikziozko film laburraren egitura dramatiko
<ul style="list-style-type: none"> - Film laburraren egitura dramatiko sinopsi moduan idatzita azaldu behar du testuak zuzentasun osoz. Aurkezpena, korapiloa eta amaiera; eta, noski, hauen artean dauden biraketak eta klimaxa. Urrats eta une guzti hauek zuzenak izan behar dira. - Errealitateko pertsonaz eta egoeraz ari garenez, istorioa, mundu historikoaren gaineko kontakizuna dela argi utzi behar du sinopsiak.
3.3. Ez fikziozko film laburraren egitura narratiboa, eszenaratzea eta muntaketa
<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezten duen mundu historikoaren egoera zein den azaltzeaz gain, parte hartzen duten protagonista eta gainontzeko pertsonen rola argi azaldu behar ditu testuak (lekukoak, adituak, ...), eta, baita ere, zein den, aurkezten den gaiarekiko parte hartzaile bakoitzaren jarrera. Deskribapen hau erabat zuzena izan behar da.

<ul style="list-style-type: none"> - Argudiatze lan honen antolamendu tematikoa zein den ondo argitu behar du testuak. Honetarako, aipatu behar dira zuzentasun osoz bloke tematiko bakoitzaren gaia/argudioa. - Era berean, sakonki zehaztu behar da tetsuan, bloke tematiko bakoitzean erabilitako errekurtsuak zeintzuk (elkarrizketak, artxibozko irudiak, lekukoen aitorpenak...) diren eta zer nolako ezaugarriekin agertzen diren (argiztapena, kokapenak, jantziak...). Beti ere, aukeraketa guzti hauek eraiki nahi den argudiaketari begira, hots, mundu historikoaren gainean eman nahi den irakurketari begira egiten direla zuzenki arrazoitu behar du testuak. - Argitasun eta zuzentasun osoz azaldu behar da ere testuan, narratzailearen presentzia ote dagoen edota mundu historikoaren gaineko begirada nola antolatzen den.. - Ezinbestekoa da, zuzentasun osoz azaltzea testuan analisi honen ondorioz erabilitako errekurtsu guztien atzean eraiki nahi den mundu historikoaren gaineko irakurketa jakina.
<p>3. Txostenaren ondorioak. TALDE GUZTIARI ERAGITEN DION EBALUAZIOA DA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egindako analisiaren emaitzak eta gaiaren gaineko bilaketa bibliografikoa kontuan hartuta, taldeak plazaratutako hausnarketa zuzena eta aberatsa izatea. Problemari sakonki eta zuzentasun osoz erantzun behar dio gogoetak. Hortaz, modu argi eta zuzentasunez azaldu behar dira, film labur bat Kimuak sailkatua izateko bete behar dituen ezaugarriak. Kontrastatu daitezkeen ezaugarriak behar dute izan. - Proposamena egiteko orduan, hemerrotekako, interneteko eta batez ere iturri bibliografikoetatik eratorritako datu aipagarri egokiak, aberatsak eta zuzenak agertuko dira. - Erreferentzia bibliografikoak eta aipuak zuzen idatzita agertuko dira.
<p style="text-align: center;">AURKEZPENAREN EDUKIAK</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpena egiteko 10-15 minutu ditu talde bakoitzak. Aurkezpenean, zuzentasun osoz plazaratu behar dira fikziozko eta ez fikziozko filmen analisiaren ezaugarri nagusiak eta ondorioak. Azken atal hau oso garrantzitsua da, eta, argi eta zuzen adierazi behar ditu aurretik egindako lanaren ondorioak. - Aurkezpena laguntzeko material bikaina (ideia nagusiak adierazten dituen) prestatu eta denbora errespetatu behar du talde bakoitzak . - Erantzun zuzenak eta argiak eman behar dizkiete gainontzeko ikasleek egindako galderei.

Taula 19. Nahikoa eskuratzeko kontuan hartzen diren irizpideak

NAHIKOA ESKURATZEKO MAILA
IDATZIKO TXOSTENAREN EDUKIAK
<p>Sarrera, 2.1. eta 3.1. Fikziozko eta ez fikziozko filmen definizioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kimuak film laburrei eta zuzendariei buruzko informazio nahikoa eta egokia izango du testuak. Hots, planteatzen dituen galderei eta zehaztutako ezaugarriari ondo erantzun behar die txostenak. - Hemerrotekako, interneteko eta batez ere iturri bibliografikoetatik eratorritako datu aipagarriak izan behar ditu.
<p>2.2. Fikziozko film laburraren egitura dramatikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Film laburraren egitura dramatikoak sinopsi moduan idatzita azaldu behar du txostenak. Aurkezpena, korapiloa eta amaiera zuzen azaldu behar dira beti, biraketak edota klimaxean akatsen bat egon daiteke. - Gutxienez, parentesi artean idatzita azalduko dira protagonistak antzeztzen dituzten aktoreen izen abizenak.
<p>2.3. Fikziozko film laburraren egitura narratiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gutxienez, protagonista eta pertsonaia nagusien rolak eta harremanak argi definituko ditu testuak. Honekin batera, azaldu behar du ere, protagonistak helburu nagusia lortzen duen edo ez. - Gertaeren antolamendu denborala deskribatuko du Testuak zuzentasunez. Bertan azaldu behar dira ere., denboratasunak ondorioztatzen dituen gertaeren arteko kateatze edo loturak. - Sekuentzia narratiboak identifikatu eta sekuentzia bakoitza garatzeko film laburrak dituen eszenak ezberdindu ditu txostenak. Egindako banaketa zuzena behar du izan, akatsik gabekoa. - Filmean dagoen estrategia narratiboa deskribatu behar du txostenak.
<p>2.4. Fikziozko film laburraren eszenaratzea eta muntaketa, eta, 2.5. Eszena nagusiaren analisisa</p>

<ul style="list-style-type: none"> - Istorioa kontatzeko orduan, zer nolako eszenaratzea eta muntaketa mota erabili dituen zuzendariak deskribatu behar du txostenak. - Aukeratutako eszenaren kasuan, zuzendariak aukeratu dituen ikus-entzunezko baliabideak zeintzuk diren, eta, eta nola antolatu dituen kontatu nahi duena kontatzeko azaldu behar du testuak - Funtsezkoa da egindako aukeraketa eta eraikitako esanahiaren arteko lotura proposatzea testuan.
3.2. Ez fikziozko film laburraren egitura dramatikoak
<ul style="list-style-type: none"> - Film laburraren egitura dramatikoak sinopsi moduan idatzita azaldu behar du. Aurkezpena, korapiloa eta amaiera zuzen azaldu behar dira beti, biraketak edota klimaxean akatsen bat egon daiteke. - Errealitateko pertsonaz eta egoeraz ari garenez, argi utzi behar du sinopsiak, istorioa mundu historikoaren gaineko kontakizuna dela.
3.3. Ez fikziozko film laburraren egitura narratiboa, eszenaratzea eta muntaketa
<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezten duen mundu historikoaren egoera zein den azaltzeaz gain, parte hartzen duten protagonista eta gainontzeko pertsonen rola argi azaldu behar ditu testuak (lekukoak, adituak, ...), eta, baita ere, aurkezten den gaiarekiko zein den parte hartzaile hauen jarrera. - Aipatu behar dira zuzentasun osoz testuan argudiatzea eraikitzen duten bloke tematiko guztien egitura eta bakoitzaren gaia/argudioa. - Era berean, aipatu behar da bloke tematiko bakoitzean erabilitako errekurtsioak zeintzuk diren (elkarrizketak, artxibozko irudiak, lekukoen aitortpenak...) eta zer nolako ezaugarriekin agertzen diren (argiztapena, kokapenak, jantziak...). - Argi azaldu behar da ere, narratzailearen presentzia ote dagoen edota mundu historikoaren gaineko begirada nola antolatzen den. - Ezinbestekoa da, azaltzea testuan analisi honen ondorioz erabilitako errekurtsio guztien atzean eraiki nahi den mundu historikoaren gaineko irakurketa jakina.
4. Txostenaren ondorioak. TALDE GUZTIARI ERAGITEN DION EBALUAZIOA DA.
<ul style="list-style-type: none"> - Egindako analisiaren emaitzak eta gaiaren gaineko bilaketa bibliografikoa kontuan hartuta, talde guztiek ondorioztatu duten hausnarketa plazaratzen du txostenak. Problemari erantzun behar dio gogortak. Hortaz, modu argi eta egokian azaldu behar dira <i>Kimuak</i>en sailkatua izateko film labur batek bete behar dituen ezaugarriak. Kontrastatu daitezkeen ezaugarriak behar dute izan (zein film laburretan eman diren...) - Agertuko dira txostenean, proposamena egiteko orduan, hemerrotekako, interneteko eta batez ere iturri bibliografikoetatik eratorritako datu aipagarriak.
<p style="text-align: center;">AURKEZPENAREN EDUKIAK</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpena egiteko 10-15 minutu ditu talde bakoitzak. Aurkezpenean plazaratu behar dira, fikziozko eta ez fikziozko filmen analisiaren ezaugarri nagusiak eta ondorioak. - Taldeek aurkezpena laguntzeko, material egokia (ideia nagusiak adierazten dituen) prestatu eta denbora errespetatu behar dute taldeek. - Gainontzeko ikasleek egindako galderari erantzun bat eman behar diete taldekideek.

Taula 20. Bikain eskuratzeko kontuan hartzen diren irizpideak

SUSPENTSOA ESKURATZEKO ERRUBRIKA
IDATZIKO TXOSTENAREN EDUKIAK
Sarrera, 2.1. eta 3.1. Fikziozko eta ez fikziozko filmen definizioa
<ul style="list-style-type: none"> - Kimuak film laburrei eta zuzendariari buruzko informazio urria eta ez egokia duenean testuak. Hots, ez dionean erantzuten galderari eta zehaztutako ezaugarriari. - Ez dituen testuak azaltzen, hemerrotekako, interneteko eta batez ere iturri bibliografikoetatik eratorritako datu aipagarriak. - Erreferentzia bibliografikoak eta aipuak gaizki idatzita agertzen direnean. - Ikus-entzunezko soslai profesionalak eta filmaren ezaugarri teknikoak argi azaltzen ez dituen txostenak.
2.2. Fikziozko film laburraren egitura dramatikoak
<ul style="list-style-type: none"> - Film laburraren egitura dramatikoak sinopsi moduan idatzita azaltzen ez duenean txostenak, edota egitura honi dagozkion urrats eta uneak gaizki adierazita azaltzen direnean.

- Protagonistak diren aktoreen izen abizenak parentesi artean agertzen ez direnean.
2.3. Fikziozko film laburraren egitura narratiboa
<ul style="list-style-type: none"> - Protagonista eta gainontzeko pertsonaien rola eta harremanak argi definitzen ez dituztenean testuak. Honekin batera, testuak adierazten ez duenean protagonistak helburu nagusia lortzen duen edo ez, eta, horrek ondorioztatzen duen aldaketa pertsonala. - Gertaeren antolamendu denboral ez zuzena deskribatzen duenean testuak. Honek ondorioztatzen dituen gertaeren arteko kateatze edo loturak azaltzen ez direnean, edo modu okerrean azaltzen direnean. - Sekuentzia narratiboak zeintzuk diren azaltzen ez direnean. Sekuentzia bakoitza garatzeko film laburrak dituen eszenak ezberdintzen ez direnean, edota orokorrean egindako banaketa zuzena ez denean. - Filmean dagoen estrategia narratiboa azaltzen ez denean, edota okerreko azalpena ematen denean.
2.4. Fikziozko film laburraren eszenaratzea eta muntaketa, eta, 2.5. Eszena nagusiaren analisia
<ul style="list-style-type: none"> - Eszenaratzearen ezaugarriak eta muntaketaren ezaugarriak, filmak kontaktzen duen istorio eta pertsonaiekin zuzenki lotuta azaltzen ez dituztenean, edota okerreko azalpenak ematen dituztenean. - Aukeraturako eszenaren kasuan, zuzendariak zer nolako ikus-entzunezko baliabide aukeratu eta nola antolatu dituen azaltzen ez duenean testuak, edota okerreko azalpena ematen duenean.
3.2. Ez fikziozko film laburraren egitura dramatikoa
<ul style="list-style-type: none"> - Film laburraren egitura dramatikoa sinopsi moduan idatzita azaltzen ez duenean txostenak, edota urrats eta une guzti hauek zuzenak ez direnean. - Errealitateko pertsonaiaz eta egoeraz ari garenez, istorioa, mundu historikoaren gaineko kontakizuna dela argi utzi uzten ez duenean sinopsiak.
3.3. Ez fikziozko film laburraren egitura narratiboa, eszenaratzea eta muntaketa
<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezten duen mundu historikoaren egoera zein den azaltzen ez duenean testuak; eta, parte hartzen duten protagonista eta gainontzeko pertsonen rola argi azaltzen ez dituztenean (lekukoak, adituak, ...); parte hartzaile hauek gaiarekiko duten jarrera aurkezten ez duenean; edota aurreko ezaugarri gehienak gaizki azaltzen dituztenean txostenak. - Antolamendu tematikoa azaltzen ez duenean txostenak; testuan bloke tematiko bakoitzaren gaia/argudioa argi aipatzen ez denean; edota aurreko ezaugarriak gaizki azaltzen dituztenean testuak. - Era berean, mundu historikoaren gainean eman nahi den irakurketari begira, aipatzen ez denean, bloke tematiko bakoitzean erabilitako errekursoak zeintzuk diren (elkarrizketak, artxibozko irudiak, lekukoaren aitorpenak...) eta zer nolako ezaugarriekin agertzen diren (argiztapena, kokapenak, jantziak...); edota, aurreko ezaugarri gehienak gaizki azaltzen dituztenean txostenak. - Narratzailearen presentzia ote dagoen, edota, mundu historikoaren gaineko begirada nola antolatzen den argi azaltzen ez denean testuan; edota, aurreko ezaugarriak gaizki azaltzen dituztenean txostenak.
4. Txostenaren ondorioak: TALDE GUZTIARI ERAGITEN DIO: 46. TALDEARI, ALEGIA
<ul style="list-style-type: none"> - Pobrea edo erabat okerra denean planteaturako hausnarketa. - Nahikoak ez direnean edota okerrak direnean, proposamenak plazaratzen dituen ezaugarriak. - Proposamena egiteko orduan, hemerrotekako, interneteko eta batez ere iturri bibliografikoetatik eratorritako datu aipagarriak agertzen ez direnean edo pobreak direnean. - Erreferentzia bibliografikoak eta aipuak gaizki idatzita agertzen direnean.
AURKEZPENAREN EDUKIAK
<ul style="list-style-type: none"> - Taldeak aurkezpenerako denbora errespetatzen ez duenean. - Azaldu beharreko edukiak azaltzen ez dituztenean edo gaizki azaltzen dituztenean txostenak. - Aurkezpena laguntzeko materiala ez egokia edo pobrea denean. - Gainontzeko ikasleek egindako galderei erantzun zuzen eta argia emateko gaitasunik ez dutenean taldeko ikasleek.



ERANSKINAK:

Taula 21. Irakasleek prestatu behar duten materialaren egutegia /Ikasleek jasoko duten materialaren egutegia

SAIOAK	IKASTURTE ASTE	HILABETE ASTE	IKASLEEK JASOKO DUTEN MATERIALA. MOODLE /ESKURA
1. SAIOA	1	Iraila/2	-Ikus-entzunezko Hizkuntza ikasgaiaren egitasmoaren laburpena . - Ikus-entzunezko Hizkuntza Ikasgaiaren egitasmoa eta lan plangintza zehatza .
2. SAIOA	2	Iraila/3	- 1. fitxa . Abiapuntua: problema egituratzailea. Zer dakigu <i>Kimuaki</i> buruz? Eskolan entregatu. - <i>Trípodos</i> aldizkarian argitaratutako <i>Kimuak</i> egitasmoaren garapenari buruzko artikulu akademikoa .
3. SAIOA	3	Iraila/3	- Talde formalaren konpromiso dokumentua . - 2. fitxa . Txostenari buruzko galdera eragileak: zeren arabera definitzen da film laburren kalitatea?, zeren arabera aukeratuko dira txostena idazteko film laburrak?
4. SAIOA	3	Iraila/4	-Talde formalaren lan ez presentzialaren jarraipen dokumentua . - 3. fitxa . Txostenerako film laburren proposamena. Talde bakoitzak landu behar dituen film laburren aukeraketa egiteko balorazio irizpideak.
5. SAIOA	4	Urria/1	- 4. fitxa . Film laburren fitxa teknikoa
6. SAIOA	4	Urria/1	- 5. fitxa . Galdera eragileak: nola analizatu daiteke ikus-entzunezko testu bat? Eskolan entregatu. - Txostena idazteko gida dokumentua .
7. SAIOA	5	Urria/2	- 6. fitxa . Zuzendarien eskarmentu profesionala.
8. SAIOA	5	Urria/2	- 7. fitxa . <i>Découpage</i> -aren jokoak. Eskola orduan entregatzeko. - 8. fitxa . <i>Découpage</i> -a jokoak 2.
9. SAIOA	6	Urria/3	- 9. fitxa . <i>Découpagearen</i> jokoak 3.
10. SAIOA	7	Urria/4	- 10. fitxa . Fikizozko film laburraren egitura dramatikoa
11. SAIOA	8	Azaroa/1	- 11. fitxa . Fikizozko film laburraren egitura narratiboa.
12. SAIOA	9	Azaroa/2	- 12. fitxa . Fikizozko film laburraren muntaketa eta eszenaratzea.
13. SAIOA	10	Azaroa/3	- 13. fitxa . Ez-fikizozko film laburraren egitura dramatikoa eta narratiboa.
14. SAIOA	13	Abendua/4	- 14 fitxa . Ez-fikizozko film laburren muntaketa eta eszenaratzea. Txostena idazteko gida dokumentua: lana egituratu.
15. SAIOA	11	Azaroa/4	10., 11., 12., 13., eta 14., fitxan irakaslearen bigarren zuzenketak (eskolan). Aurkezpeneko egutegia
16. SAIOA	15	Abendua/4	POI-ri buruzko inkesta.



Taula 22. Ikasleek materialaren entregatzeko egutegia

SAIOAK	IKASTURTE ASTEAK	HILABETE ASTEAK	IKASLEEK JASOKO DUTEN MATERIALA. MOODLE /ESKURA
1.SAIOA	1	Iraila/2	
2.SAIOA	2	Iraila/3	-1. fitxa. Abiapuntua: problema egituratzailea. Zer dakigu <i>Kimuaki</i> buruz? Eskolan entregatu. <i>Tripodos-eko artikulu akademikoa</i> . 3. Saioa baino egun bat lehenago. Eskura.
1. SAIOA	3	Iraila/3	- Talde formalaren konpromiso dokumentua. 4. Saioa baino egun bat lehenago. Moodle. - 2. fitxa. Txostenari buruzko galdera eragileak: zeren arabera definitzen da film laburren kalitatea?, zeren arabera aukeratuko dira txostena idazteko film laburrak? Eskola orduan entregatzeko.
2. SAIOA	3	Iraila/4	-3. fitxa. Txostenerako film laburren proposamena. Talde bakoitzak landu behar dituen film laburren aukeraketa egiteko balorazio irizpideak. 5. Saioa baino egun bat lehenago. Moodle.
3. SAIOA	4	Urria/1	-4. fitxa. Film laburren fitxa teknikoak. 7. Saioa baino egun bat lehenago. Moodle. -Astero: talde formalaren lan ez presentzialaren jarraipen dokumentua. Moodle.
4. SAIOA	4	Urria/1	-5. fitxa. Galdera eragileak: nola analizatu daiteke ikus-entzunezko testu bat? Eskolan entregatu. -Txostena idazteko gida dokumentua. Astero: talde formalaren lan ez presentzialaren jarraipen dokumentua. Moodle.
5. SAIOA	5	Urria/2	-6. fitxa. Zuzendarien eskarmentu profesionala. 8. Saioa baino egun bat lehenago. Moodle.
6. SAIOA	5	Urria/2	- 8. fitxa. <i>Découpagearen</i> jokoak 2. 9. Saioa baino egun bat lehenago. Moodle.
7. SAIOA	6	Urria/3	-9. fitxa. <i>Découpagearen</i> jokoak 3., eskolan.
8. SAIOA	7	Urria/4	-10. fitxa. Fikizozko film laburraren egitura dramatikoak. 11. Saioa baino egun bat lehenago.
9. SAIOA	8	Azaroa/1	-10. fitxa. Zuzenketa irakasleari/taldeari 12. Saioa baino egun bat lehenago igorri. Moodle. -11. fitxa. Fikizozko film laburraren egitura narratiboa. 12. Saioa baino egun bat lehenago igo. Moodle.
10. SAIOA	9	Azaroa/2	-11. fitxa. Zuzenketa irakasleari/taldeari 13. Saioa baino egun bat lehenago igorri. Moodle. -12. fitxa. Fikizozko film laburraren muntaketa eta eszenaratzea. 13. Saioa baino egun bat lehenago igo. Moodle.
11. SAIOA	10	Azaroa/3	-12. fitxa. Zuzenketa irakasleari/taldeari 14. Saioa baino egun bat lehenago igorri. Moodle. -13. fitxa. Ez-fikizozko film laburraren egitura dramatikoak eta narratiboa. 14. saioa baino egun bat lehenago igo. Moodle.
12. SAIOA	11	Azaroa/4	14. fitxa. Ez-fikizozko film laburraren egitura muntaketa eta eszenaratzea. 15. saioa baino egun bat lehenago igo. Moodle.
AZEKEN LANAREN ENTREGA DATA: ikasturtearen 13 astea, abenduaren 2. asteko OSTIRALA. Nola entregatu: Moodle. Paperezko kopia bat entregatu aurkezpen egunean. ZER ENTREGATU BEHAR DA: Txostena eta taldearen lan ez presentzialaren jarraipen dokumentua.			



TRÍPODOS aldizkarian Kimuaki buruz argitaratutako artikulu akademikoaren esteka:

http://www.tripodos.com/index.php/Facultat_Comunicacio_Blanquerna/issue/archive